

EUSKADIKO GAZTEEN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA 2017



Izenburua: Euskadiko gazteen egoeraren diagnostikoa 2017

Egilea: Gazteen Euskal Behatokia

Ikerketa-taldea: Nieves Corcuera Bilbao, Miren Bilbao Gaztañaga eta Oskar Longo Imatz

Diseinu grafikoa eta maketazioa: Gazteen Euskal Behatokia

Bilbao, 2017ko apirila



Dokumentuaren edizio honetan jasotako edukiak lizentzia honekin argitaratu

dira: Aitorpena - Ez-komertziala - Obra eratorririk gabea 4.0

Unported de Creative Commons (informazio gehiago http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/3.0/deed.es_ES)

Aurkibidea

Sarrera eta metodologia	6
1. TESTUINGURU DEMOGRAFIKOA.....	7
1.1. Euskadiko biztanleria gazteak biztanleria osoan duen proportzioak jaisten jarraitzen du	7
1.2. Euskadin bizi diren gazte atzerritarren kopuruak behera egin du	9
1.3. Ama lehen aldiz izateko batez besteko adina 30 urtetik gorakoa izaten jarraitzen du.....	10
2. HEZKUNTZA.....	12
2.1. Euskadin, eskola behar baino lehen uztearen tasak behera egiten jarraitzen du.....	12
2.2. 20-24 urtekoen aldean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko mailetako graduazio-tasak azken 15 urteetako baliorik gorena izan du 2014an.....	12
2.3. 30-34 urteko pertsonen taldean, goi-hezkuntzako titulazio-tasa % 50era hurbiltzen da	13
2.4. Gizon gazteen zientzia eta teknologiako graduazio-tasa, ehunekotan, 21 puntu handiagoa da neska gazteena baino.....	14
2.5. PISA txostenean, okerrera egin dute Euskadiko 15 urteko neska eta mutil gazteen emaitzek	14
2.6. Euskararen ezagutzak zertxobait gora egin du 15-29 urteko gazteen taldean	15
2.7. Ingeleseztan oso ondo edo nahiko ondo hitz egiten dutela dioten Euskadiko gazteen ehunekoa asko handitu da 10 urtean	16
2.8. Euskadiko hamar gaztetatik hiru hirueledunak dira	17
2.9. Euskal hezkuntza-sistemari buruzko balorazioak hobera egin du gazteen kolektibo guztietan	17
3. ENPLEGUA.....	19
3.1. 25 urte bete aurretik, gazteen okupazio nagusia ikastea da; adin horretatik aurrera, gehienak lanean ari dira	19
3.2. Gazteen jardura tasa % 49,1era arte jaitsi da	20
3.3. Enplegu-tasak zertxobait egin du onera, baina krisiaren aurreko balioetatik urrun dago oraindik.....	20
3.4. 2016an, langabezia-tasak behera egin du, baina hiru aldiz handiagoa da oraindik 2008ko tasa baino	24
3.5. Soldatapeko gazteen erdia baino gehiago enpleguaren behin-behinekotasunaren eraginpean daude	26
3.6. Lanaldi partzialeko enplegu-tasak hazkunde esponentziala izan du, emakumeen artean batez ere	26
3.7. Gazte landunen hileko batez besteko soldata 1.000 euro ingurukoa da	28
3.8. Lan egiten dutenen erdiak soilik dute beren prestakuntzarekin lotutako lana	29
3.9. Norberaren konturako enplegua urria da, eta autoenplegua baliatzeko jarrera ere minoritaria da	29
3.10. Azken hamarkadan nabarmen behera egin du gazteen lan-istripuen kopuruak Euskadin.....	31
4. EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA	32
4.1. Euskadiko gazteek beren gurasoekin bizitzeari uzten dioten batez besteko adina Europako altuenetako bat da	32
4.2. 18-34 urteko pertsonen taldean, emantzipazio-tasa % 40,9 da	32
4.3. Etxebizitzaren prezioak behera egin badu ere, gazteentzat, emantzipatzeko arazo nagusia etxebizitza garesti egotea da oraindik ere	33

4.4. Alokatzearen aldeko aukerak gora egin du azken urteetan, asko, eta gazteen gehiengoaren emantzipazio-aukera nagusi bihurtu da.....	35
4.5. Ehun gaztetatik ia batek lortzen du urtean etxebizitza publiko bat.....	35
4.6. Emantzipatutako bost pertsona gaztetatik bat gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dago hipotekaren edo alokairu-errentaren ordainketari aurre egiteko	36
4.7. EAEn, 35 urtetik beherakoak buru dituzten familietako pertsonen % 15,3 benetako pobrezia-egoeran daude	37
4.8. 25-29 urteko hamar gaztetatik lauk uste dute beren emantzipazio-espektatibak zapuztu egingo direla urtebeteko epean	38
5. OSASUNA	39
5.1. Gazte gehienek uste dute osasun ona dutela. Hala ere, bost pertsona gaztetatik batek osasun-arazo kronikoak ditu eta hamar gaztetatik batek antsietatea eta/edo depresioa du	39
5.2. Lau gaztetatik hiruk jarduera fisiko osasungarria egiten dute	39
5.3. Obesitate-tasa txikia da, baina gora egiten ari da azken urteotan	40
5.4. Lau pertsona gaztetatik batek alkoholaren gehiegizko kontsumoa edo kontsumo arriskutsua egin du galdeketa aurreko hilabeteko egunen batean	41
5.5. Tabakoaren kontsumoak behera egin du eta, lehen aldiz, 15-74 biztanleriaren batez besteko kontsumotik behera dago	41
5.6. Halaber, cannabisaren kontsumoa nabarmen jaitsi da	42
5.7. 15-29 urteko gazteen % 12,2k arriskuko sexu-harremanen bat izan dute azken urtean.....	43
5.8. Aurreko urteetan bezala, 15-29 urteko pertsonen taldean, HIESagatiko infekzio berrien tasa 1/10.000 mugatik gorakoa da oraindik	43
5.9. Haurduntza adoleszenteen tasak behera egin du.....	44
5.10. Azken hamarkadan, nabarmen jaitsi da zirkulazio-istripuengatiko heriotza-kopurua.....	45
6. GIZARTE EKINTZA	46
6.1. 16-29 urteko gazteen ia erdiak hilean 300 euro baino gutxiago dituzte	46
6.2. Gazte gehienek familiarekiko mendekotasun ekonomikoa dute.....	46
6.3. Pobrezia-egoeran dauden gazteen ehunekoak gora egin du krisi ekonomikoaren ondorioz.....	47
6.4. 16-29 urteko gazteen % 2,0 DBEren onuradunak dira	48
6.5. Euskadin, gazteen % 15,8k ez dute lanik egiten eta ez dira ikasten ari	49
6.6. 15-29 urteko 1.000 emakumetatik 7k genero-indarkeriagatiko salaketaren bat jarri dute	50
6.7. Bikote barruan izan daitezkeen indarkeria-forma guztien larritasunarekiko kontzientziazioa areagotu da	50
6.8. 15-29 urteko hiru emakumetatik bati beldurra ematen dio gauean herrian edo auzoan bakarrik ibiltzeak	51
6.9. Gizonen eta emakumeen arteko desparekotasunak etxeko lanen banaketan edo lana lortzeko aukeretan era ageri dira.....	52
6.10. Sexu berekoen arteko ezkontzak eta sexu-aldaketak onartzearen alde daudenek gora egin dute	54
6.11. Immigranteak sartzearen aurkako gaitzespenak behera egin du	54
7. AISIA ETA KULTURA.....	56
7.1. 15-29 urteko pertsonen aisia-jarduera nagusiak teknologia berriekin lotuta daude	56
7.2. Gazteen % 99k sare sozialen bat erabiltzen dute, WhatsApp, Facebook, Instagram eta YouTube batik bat	57

7.3. Iaz, gazteen % 37,1ek baliatu zituen sare sozialak eztabaidak edo salaketak sustatzeko edo zabaltzeko	58
7.4. Sare sozialetako jazarpen-modurik ohikoena (Cyberbullying) WhatsAppeko taldeetatik botatzeara da	59
7.5. Teknologia berriek arte-jardueretan parte-hartze handiagoa izatea eragin dute, ikus-entzunezkoetan batik bat	59
7.6. Hamar gaztetatik zortzi baino gehiago joan dira kultura- edo kirol-ikuskizunen batera azken hiru hilabeteetan	60
7.7. Euskadiko gazteen ia erdiak kirolen bat egiten du, modu erregularrean	61
7.8. 15-29 urteko gazteen erdiak baino gehiagok diote azken hilabeteetan libururen bat irakurri dutela aisiagatik	62
7.9. Euskaraz irakurtzeko ohitura gero eta txikiagoa da ikasketak amaitu ahala	63
7.10. Lagunekin euskara erabiltzeak behera egin du 15-29 urteko gazteen artean	63
7.11. Gora egiten dute asoziazionismo tasak eta boluntario-lanek 15-29 urteko gazteen artean	65
8. KONTSUMOA ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIA	66
8.1. Euskal gazteen % 55,8k era arrazionalen kontsumitzen dute	66
8.2. Gutxiengoak dira ohiko kontsumoan irizpide etikoei jarraitzen dietenak	67
8.3. Euskal gazteen % 43,3k kontsumo jasangarria egiten dute	68
8.4. Garraibide jasangarrien (garraio publiko kolektiboa eta bizikleta) eguneroko erabilerak gora egin du.....	69
8.5. Beste kontsumo-forma alternatibo batzuk gora egiten ari dira	70
Laburpen-koadroa	72

Sarrera eta metodologia

Dokumentu honetan, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko gazteen 2017ko errealitatearen argazkia jaso da, modu sintetikoan.

2017ko martxoan, Gazteen Euskal Behatokiak Euskadiko gazteen egoeraren diagnostiko hau egin du, Gazte Plana 2018-2020 planaren erreferentzia-marko estatistikoa izan dadin.

Dokumentu honen helburu nagusia Euskadin bizi diren 15-29 urteko kolektiboari buruzko jakintzan sakontzea da, eremu hauei dagokienez: testuinguru demografikoa, hezkuntza eta prestakuntza, enplegua, emantzipazioa eta etxebizitza, osasuna, gizarte-ekintza, aisia, kultura eta euskara, eta, azkenik, kontsumo eta mugikortasun jasangarria.

Diagnostiko honetan, zenbait iturritan jasotako informazioa erabili da, hala nola, Gazteen Euskal Behatokiak berak egindako ikerketak (Euskadiko gazteak, Emantzipazioa, Aurrera begira bildumak eta abar). Funtsezko beste iturri estatistiko bat Gazteen Euskal Behatokiak bi urtean behin egiten duen Gazteen panoramika izeneko ikerlana izan da. Lan horretan, 111 adierazle aztertzen dira, eta neurri handian erabili dira diagnostiko hau egiteko. Bestalde, erabili dira Eusko Jaurlaritzaren beste esparru batzuetako ikerketak ere: EUSTAT; Lehendakaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, Osasun Saila, Hezkuntza Saila eta abar.

Zenbait adierazletarako, aukera egon denean eta egokitzat jo denean, beste eremu geografikoetako (Espainia eta 28en EB) datuak erabili dira, aldagaiei buruzko alderaketak egiteko. Alde horretatik, Estatistika Institutu Nazionala (INE) eta Europako Erkidegoko Estatistika Bulegoa (EUROSTAT) izan dira iturri nagusiak.

Kasu guztietan, eskuragarri dauden datu berrienak hartu dira, estatistika batzuk eta besteak maiztasun desberdinez egiten baitira.

Diagnostiko honetan jasotako informazioa zabaldu nahi izanez gero, Gazteen Euskal Behatokiaren webgunera jo daiteke. Webgune horretan, baliabide hauek daude: adierazle-sistema bat online, datu-base interaktibo bat Euskadiko Gazteen Panoramikaren informazio guztiarekin, bai eta Gazteen Euskal Behatokiak egindako ikerketen serie osoak ere.

1

1. TESTUINGURU DEMOGRAFIKOA

1.1. Euskadiko biztanleria gazteak biztanleria osoan duen proportzioak jaisten jarraitzen du

2016ko
urtarrilaren
1ean, 15-29
urteko 283.517
pertsona zeuden
Euskadin

Faktore hauek batera izatearen ondorioz gertatzen da biztanleriaren zahartzea: jaiotza-tasa txikia, beheranzko joera duen heriotza-tasa, eta, azkenik, bizi-itxaropen gero eta luzeagoa. Fenomeno hori Europa osoan ari da gertatzen, eta luze eta zabal dokumentatu eta aztertu da. Euskadi fenomeno horren adibide muturrenetako bat da.


2016ko urtarrilaren 1ean, Euskadik 2.171.886 biztanle zituen. Biztanle horietatik 283.517 15-29 urteko gazteak ziren: % 50,9 gizonak (144.480) eta % 49,1 emakumeak (139.037).

15-29 urteko biztanleen kolektiboa bost urtekako adin-taldetan banatu eta haren barne-egiturari erreparatuta, ikusten da banaketa nahiko homogeneoa dela: 15-19 urtekoen taldean, kolektibo horretako pertsonen % 32,4 daude (90.948 pertsona), 20-24 urtekoen taldean, % 31,4 (89.128 pertsona), eta 25-29 urtekoen taldean, berriz, % 36,2 (103.441 pertsona).

Lurralde historikoen arabera, 15-29 urteko biztanleen taldeko pertsonen % 51,4 Bizkaian bizi dira (145.601 pertsona), %33,7 Gipuzkoan (95.483 pertsona) eta % 15,0 Araban (42.433 pertsona).

1.1 grafikoa

Euskadiko 15-29 urteko biztanleria gaztearen eta biztanleria osoaren bilakaera (zifra absolutuak)



Iturria: EUSTAT (Biztanleen udal-estatistika)

1975ean, Euskadik 2.000.000 biztanleen muga gainditu zuen lehen aldiz, eta ordutik hona, Euskadiko biztanleriaren hazkundera txikia izan da. Hain zuzen ere, gorabehera txikiekin, Euskadiko biztanleriak % 7ko hazkundera baino ez du izan.


2001-2016
aldian, Euskadin
bizi diren 15-29
urteko
pertsonen
kopurua % 37
jaitsi da

Biztanleria osoaren eta biztanleria gaztearen bilakaerak oso desberdinak izan dira. Biztanleria osoaren balioak egonkorrak dira, baina biztanleria gazteak etengabeko jaitsiera izan du azken urteotan

Euskadiko biztanleria osoaren hazkunde-maila egonkorra izan da, baina biztanleria gazteak beherakada handia eta konstantea izan du azken 20 urteotan: 2001etik 2006era, % 16,7ko beherakada izan zuen, eta 2006tik 2011ra, berriz, beste % 15,8. 2016an, badirudi beherakada zertxobait geldotu dela.

1.2 grafikoa

Euskadiko 15-29 urteko biztanleria gaztearen eta biztanleria osoaren arteko alderaketa (gehikuntza- eta beherapen-ratioak)




Iturria: Geuk egina, EUSTATen datuak (*Biztanleen udal-estatistika*) abiapuntu hartuta

Jaiotza-tasa txikiaren eta bizi-itxaropen handiengo horren isla, Euskadiren biztanleria-piramide alderantzikatua da, eta bigarren trantsizio demografikoaren berezko egitura du: helduen eta zaharren adin-tarteak handitu dira, eta adin txikieneko taldeek bere horretan jarraitu edo behera egin dute. Halaxe ikusten da 1976tik 2016ra bitartean izandako bilakaeran.

1.3 grafikoa

Euskadiko 1976ko eta 2016ko biztanleria-piramideen arteko alderaketa




Iturria: EUSTAT. Adierazle demografikoak (*Biztanleen udal-estatistika. Biztanleriaren proiektzioak*)

Euskadin, gazteen indizeak behera egin du 2001etik 2016ra bitartean, % 21,6tik % 13,1era

Demografia-joeren ondorioz, gazteen indizeak (hau da, pertsona gazteen proportzioa biztanleria osoan) etengabeko jaitsiera izan du Euskadin azken urteotan: 2001ean, % 21,6koa zen, eta 2016an, berriz, % 13,1koa. Balio hori dela eta, Euskadiko gazteen indizea Europako eskualdeetako baxuenetako bat da. Kontinente zahartua da Europa; hain zuzen ere, 28en EBko gazteen batez besteko indizea % 17,4 da.

1.4 grafikoa
Euskadiko gazteen indizearen bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, EUSTATen (Biztanleen udal-estatistika) datuak oinarri harturik

1.2. Euskadin bizi diren gazte atzerritarren kopuruak behera egin du

Euskadin bizi diren gazteen % 12,7 atzerrian jaiotakoak dira. Euskadiko gazte atzerritarren kopurua asko handitu zen 2001-2011 aldian, 3.365 pertsonatik 45.933 pertsonatara, baina azken bost urteetan, kopuru hori % 21 jaitsi da (35.934 pertsona dira orain). Beherakada hori faktore hauen konbinazioak eragin du: batetik, gazte atzerritar gutxiago datoz Euskadira, eta bestetik, Euskadin bizi diren atzerritarrak beste leku batzuetara emigratzen ari dira.

1.5 grafikoa
Euskadin bizi diren 15-29 urteko biztanle atzerritarren bilakaera (zifra absolutuak)



Iturria: EUSTAT (Biztanleen udal-estatistika)

2001etik 2011ra oso hazkunde handia izan ondoren, Euskadiko biztanleria atzerritar gazteak beherakada handia izan du 5 urteko aldian, % 21 jaitsi da hain zuzen ere

Biztanle gazte atzerritarren indizea, biztanleria osoaren indizea baino handiagoa bada ere, jaisten ari da azken urteotan


Sexuaren arabera, hau da kolektibo horren biztanleria-egitura: 18.292 emakume eta 17.642 gizon. Nabarmendu beharra dago, halaber, kolektibo horretan ere seinale kezagarriak daudela, nahiz eta gazteen indizea Euskadiko biztanleria osoan baino handiagoa den. Izan ere, 15-19 urtekoen taldea 7.808 pertsonak osatzen dute; 20-24 urtekoen taldea, 11.005 pertsonak; eta 25-29 urtekoen taldea, berriz, 17.121 pertsonak (ugariena da).

Aurreko diagnostiko batzuetan, azpimarratzen zen atzerritarren kolektiboak eragina zuela Euskadiko biztanleriaren zahartze-fenomenoa arintzeko, baina azken urteotan eragin hori txikiagoa da.

Izan ere, gazte atzerritarren indizearen bilakaerari erreparatzen badiogu, eta alderatzen badugu Euskadiko biztanleria osoko gazteen indizearen bilakaerarekin, ikusten da gazteen ehunekoak behera egiten ari direla bi kasuetan azken 10 urteetan. Atzerritarren artean, pertsona gazteen ehunekoa hamar puntu handiagoa da biztanleria osoko gazteen ehunekoa baino (% 24,1 eta % 13,1, hurrenez hurren), baina indize horrek beheranzko joera du bi kasuetan.

1.6 grafikoa

Euskadiko gazteen indize orokorraren eta biztanle gazte atzerritarren indizearen bilakaera (%)



Iturria: EUSTAT (Biztanleen udal-estatistika)

1.3. Ama lehen aldiz izateko batez besteko adina 30 urtetik gorakoa izaten jarraitzen du

Euskadin, ia 20 urteko azken aldian (2000tik, hain zuzen), ama lehen aldiz izateko batez besteko adina 30 urtetik gorakoa izan da. Gainera, 2015ean izan zuen adierazle horrek baliorik handiena: 31,8 urte.

Datu hori are adierazgarriagoa da ama gazteen nazionalitateari erreparatzen badiogu, espainiar nazionalitatea dutenen artean batez besteko adina 32,4 urtekoa baita. Emakume gazte atzerritarren artean, ama lehen aldiz izateko batez besteko adina 27,7 urte da.

Lehenbizikoz ama izateko batez besteko adina 31,8 urte izan zen 2015ean, inoiz izandako baliorik altuena


Europar Batasuneko batez besteko ugalkortasun-tasa Euskadiko 15-29 urteko emakumeen tasaren bikoitza da

Bestalde, bitxia da ikustea emakume gazte atzeritarren artean ama lehen aldiz izateko adina handituz doala: 25,9 urte zen 2002an, eta 27,7 urte 2015ean.

Ugalkortasun-tasa izeneko indizeak neurtzen du zenbat haur jaiotzen diren bizirik urtean adin-tarte jakin bateko 1.000 emakumeko. Euskadin, 15-29 urteko nesken ugalkortasun-tasa 26,3 da, adin-tarte horretako 1.000 emakumeko. Balio hori nekez interpreta daiteke, baina behar bezala ebaluatu daiteke, 28en EBko batez besteko balioarekin alderatuz gero. EBn, balio hori 51,3 da, 15-29 urteko 1.000 emakumeko.

1.7 grafikoa

Euskadiko 15-29 urteko emakumeen ugalkortasun-tasa, adin-tarte horretako 1.000 emakumeko



Iturria: EUSTAT (Biztanleen udal-estatistika)

2

2. HEZKUNTZA


2.1. Euskadin, eskola behar baino lehen uztearen tasak behera egiten jarraitzen du

Eskola behar baino lehen uztearen tasak hau neurtzen du: 18-24 urteko taldeko biztanleen zer ehunekok gehienez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) bukatu duen eta ez duen inolako ikasketarik edo prestakuntzarik egin inkestaren aurreko lau asteetan.

Eskola-uztearen tasak bilakaera positiboa izan du azken urteotan Euskadin: 2006an, % 12,0 zen, eta 2014an, berriz, % 7,5. Mutilen eta nesken arteko aldea (2006an, % 15eko eta % 8,5eko tasak zituzten, hurrenez hurren) txikituz joan da, 1,4 puntuko aldera heldu arte (% 8,2 mutilen artean, eta % 6,8 nesken artean).

2.1 grafikoa

Eskola behar baino lehen uztearen tasaren bilakaera 18-24 gazteen taldean, sexuaren arabera (%)



Iturria: EUSTAT, (2020 Europa adierazleak)

Azken urteotan, txikitu egin da eskola behar baino lehenago uzten duten nesken eta mutilen arteko aldea

Balio hori dela eta, Euskadi egoera hobean dago Espainia baino (% 21,9), bai eta 28en EB baino ere (% 11,1).

2.2. 20-24 urtekoen aldean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko mailetakoko graduazio-tasak azken 15 urteetako baliorik gorena izan du 2014an

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko mailetakoko graduazio-tasak neurtzen du 20-24 urteko biztanleriaren zer ehunekok bukatu duen, gutxienez, derrigorrezkoa ez den Bigarren Hezkuntza (Batxilergoa edo erdi-mailako heziketa-zikloa).

Bigarren Hezkuntzako graduazio-tasa egonkorra da, eta azken 10 urteetan, % 80,0ren ingurukoa izan da urtero. Eskola behar baino lehen uzten dutenen tasan mutilen eta nesken artean zegoen aldea berdindu egiten da Bigarren Hezkuntzako graduazio-tasan.


Adierazle hau Espainia eta EB28rekin alderatzen badugu, zera ikusten dugu: Euskadikoa % 85,9koa da, Espainiakoa baino 20 puntu altuagoa (% 65,8) eta EB28koa baino zertxobait altuagoa ere (% 82,3).

Bigarren Hezkuntzako graduazio-tasa antzekoa da gizonen eta emakumeen artean

30-34 urteko nesken goi-mailako titulazio-tasa, ehunekotan, 18 puntu handiagoa da mutilen tasa baino

2.2 grafikoa

Derrigorrezko Bigarren hezkuntzaren Ondoko mailetakoko graduazio-tasa 20-24 urteko gazteen taldean, eremu geografikoaren arabera (%)



Iturria: EUSTAT (Euskadi 28en EBn)


2.3. 30-34 urteko pertsonen taldean, goi-hezkuntzako titulazio-tasa % 50era hurbiltzen da

30-34 urteko pertsonen goi-hezkuntzako (unibertsitate-ikasketak edo goi-mailako heziketa-zikloak) titulazio-tasa ia hamar puntu handitu da 2006tik 2016ra, % 37,8tik % 47,5era.

Goi-hezkuntzako graduazio-tasan, tarte handia dago gizonen eta emakumeen artean, emakumeen alde, eta horrela izan da azken 10 urteetan. 2006an, gizonen graduazio-tasa % 30,6 zen, eta emakumeena, berriz, % 45,6. 2014an, gizonen tasa % 40,7ra iritsi zen, eta emakumeena, berriz, % 58ra.

2.3 grafikoa

Goi-hezkuntzako graduazio-tasaren bilakaera 30-34 gazteen taldean, sexuaren arabera (%)



Iturria: EUSTAT (Euskadi 28en EBn)

Euskadin, zientzia eta teknologiako graduazio-tasa 28en EBko edozein estaturena baino handiagoa izan zen 2012an

20-29 urteko gazteen artean, generoen arteko aldea dago oraindik ere zientzia eta teknologiako graduazio-tasan

Goi-hezkuntzako titulazio-tasa % 50ekoa da Gipuzkoan 30-34 urtekoen taldean. Araban, % 41,7koa da, eta Bizkaian, berriz, % 47,5ekoa.


Ehuneko hori dela eta, Euskadi 28en EBren batezbestekoaren gainetik dago (% 37,9), bai eta Espainiaren batezbestekoaren gainetik ere (% 42,3).

2.4. Gizon gazteen zientzia eta teknologiako graduazio-tasa, ehunekotan, 21 puntu handiagoa da neska gazteena baino

Goi-hezkuntzako titulazio-tasa nesken artean askoz handiagoa den arren, zientzia eta teknologiako graduazio-tasaren kasuan guztiz kontrakoa gertatzen da. Gainera, finkatutako joera da eta ez da apenas aldatu azken 10 urteetan. Aldi horretan, tasa horrek erakusten du mutilek neskek baino gogokoago dituztela ikasketa zientifiko eta teknikoak.

2.4 grafikoa

Zientzia eta teknologiako graduazio-tasaren bilakaera 20-29 urteko gazteen artean (adin-tarte horretako 1.000 pertsonako tasa)



Iturria: Hezkuntza Saila, ISEI-IVEI, (Hezkuntza Adierazleen Euskal Sistema)

Adierazle horrek Espainiako estatuan duen balioarekin alderatuz gero, ikusten da Euskadiko tasa askoz handiagoa dela Espainiakoa baino (20-29 urtekoen taldean, 1.000 pertsonako 15,6).

2.5. PISA txostenean, okerrera egin dute Euskadiko 15 urteko neska eta mutil gazteen emaitzek

Ikasleen Nazioarteko Ebaluazio Programaren Txostenak (PISA Txostena) ikasleen errendimenduaren azterketa du oinarri. Ebaluazio horretarako, azterketa batzuk egiten dira hiru urtean behin zenbait herrialdetan, ikasleen nazioarteko balorazioa zehazteko. Txosten hori ELGEK, Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeak, egiten du, 15 urteko ikasleei proba estandar batzuk egin ondoren.

Azken hilabeteotan, 2015ean egindako proben emaitzak argitaratu dira, eta, Euskadiko 15 urteko emaitzen balioek izan duten beherakada eta beherakada horrek izandako oihartzun mediatiko eta politikoa direla eta, egokia iruditu zaigu txosten horretako datuak azterketa honetan jasotzea.


2015eko PISA txostenean, Euskadiren emaitzak ELGEko herrialdeen batezbestekoen azpitik egon ziren

Euskadiko gazteen ia bi herenek euskaraz oso ondo edo nahiko ondo hitz egiten dute

Jarraian ageri den grafikoan ikusten da 2015eko balioek, 2003tik 2012ra bitartean izan diren lau edizioetako bakoitzean hobera egin ondoren, beherakada izan dutela neurtzen diren hiru gaitasunetan. Gaitasun zientifikoan, 506 puntutik 483 puntura jaitsi da; irakurmenean, 498 puntutik 491 puntura, eta gaitasun zientifikoan, berriz, 505 puntutik 492 puntura. Jaitsiera horiek direla eta, Euskadi ELGEko batezbestekotik behera dago gaitasun zientifikoan eta irakurmenean (bi kategoria horietan, ELGEko batez besteko puntuazioa 493 puntu da). Gaitasun matematikoari dagokionez, ELGEkoa baino zertxobait handiagoa da Euskadiko batezbestekoa (490 eta 492 puntu, hurrenez hurren).

2.5 grafikoa

15 urteko ikasleek PISA Txosteneko probetan gaitasun zientifikoan, irakurmenean eta gaitasun matematikoan lortutako balioen bilakaera (puntuak)



Iturria: Hezkuntza Saila, ISEI-IVEI, (PISA txostena)

2.6. Euskararen ezagutzak zertxobait gora egin du 15-29 urteko gazteen taldean


Euskadiko 15-29 urteko gazteen % 64,4k diote euskaraz oso ondo edo nahiko ondo egiten dutela.

Gipuzkoan, ehuneko hori % 74,8ra arte igotzen da, eta Araban eta Bizkaian nabarmen txikiagoa da (% 53,4 eta % 60,4, hurrenez hurren).

Euskararen ezagutzari dagokionez, hizkuntza hedatuago dago gazteen artean. Hain zuzen ere, 15-19 urteko gazteen % 81,8k euskararen ezagutza-maila oso ona edo nahiko ona dute; 20-24 urtekoen taldean, ehuneko hori % 59,3ra arte jaisten da; eta 25-29 urtekoen taldean, berriz, % 54,4ra arte. D ereduan matrikulazio gehiago egoteak eragiten du euskaraz hitz egiten dakiten gazteen ehunekoa handiagoa izatea.

Euskararen ezagutza-maila handiagoa da Gipuzkoan beste bi lurralde historikoetan baino. Euskal gazteen % 42,2k diote ingelesez nahiko ondo edo oso ondo mintzatzen direla

2.6 grafikoa
Euskararen ezagutzaren bilakaera, 15-29 urteko gazteen taldean (%)




Iturria: EUSTAT (Bizi-baldintzen inkesta)

2.7. Ingelesez oso ondo edo nahiko ondo hitz egiten dutela dioten Euskadiko gazteen ehunekoa asko handitu da 10 urtean

2014an, 15-29 urtekoen taldean, ingelesaren ezagutza-maila antzekoa zen hiru lurralde historikoetan.

2.7 grafikoa
Ingelesaren ezagutza-mailaren bilakaera, 15-29 urteko gazteen taldean, lurralde historikoen arabera (%)



Iturria: EUSTAT (Bizi-baldintzen inkesta)

15-29 urteko euskal gazteen ia heren batek ondo hitz egiten dute euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez

Gipuzkoan gazte hirueledun gehiago daude Araban eta Bizkaian baino


2.8. Euskadiko hamar gaztetatik hiru hirueledunak dira

Euskadiko hirueletasun-tasa kalkulatzeko, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez ondo egiten duten gazteak hartzen dira kontuan. Adierazle horren balioak gero eta handiagoak dira, ingelesaren jakintza-mailaren gorakadagatik eta, neurri txikiagoan, euskararen jakintza-mailaren gorakadagatik. Ingelesari dagokionez, 2009-2014 aldian, gorakada txikiagoa izan da (% 26,0tik % 30,9ra) 2004-2009 aldikoa baino (% 18,5etik % 26,0ra).

Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoak du balio handiena (% 36,3). Alde handia dago beste bi lurralde historikoekiko, euskararen ezagutza handiagoa delako (Gipuzkoan, gazteen % 74,8k diote euskaraz oso ongi edo nahiko ongi egiten dutela; Araban, % 53,4k diote hori; eta Bizkaian, berriz, % 60,4k).

2.8 grafikoa

15-29 urteko gazteen hirueletasunaren bilakaera, lurralde historikoen arabera (%)



Iturria: EUSTAT (Bizi-baldintzen inkesta)


2.9. Euskal hezkuntza-sistemari buruzko balorazioak hobera egin du gazteen kolektibo guztietan

Euskadiko hezkuntza-sistemaren balorazioa oso positiboa da eta, gainera, 2016an izan du baloraziorik altuena, 2000. urtetik hona egindako azterketek erakutsitako ildoan. Hain zuzen ere, % 67,3k uste dute hezkuntza-sistema oso ona edo nahiko ona dela.

Alde nagusia lurralde historikoen arabera ikusten da. Arabako gazteen % 71,9k pentsatzen dute Euskadiko hezkuntza-sistema oso ona edo nahiko ona dela. Gipuzkoan, ehuneko hori are handiagoa da (% 78,2). Bizkaian, berriz, askoz txikiagoa da (% 59,0), eta horrez gain, % 12,8k uste dute Euskadiko hezkuntza-sistema txarra edo oso txarra dela.

Gazteen bi herenek uste dute euskal hezkuntza-sistema oso ona edo nahiko ona dela

2.9 grafikoa
Gazteek Euskadiko hezkuntza-sistemaz egiten duten balorazioaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak bilduma)

Euskadiko hezkuntza-sistemaren balorazio positiboa orokorra da, eta antzekoa da kolektibo guztietan, lortutako ikasketa-maila dena delakoa izanda ere. Hain zuzen ere, 2016an, Euskadiko balio orokorrari dagokionez, % 67,3k balorazio positiboa egin zuten; derrigorrezko hezkuntzako ikasketak dituzten gazteen artean, % 68,0ra iritsi zen ehuneko hori; derrigorrezko hezkuntzako ikasketen ondokoak dituztenen artean, % 69,0 zen; eta goi-ikasketak dituztenen artean, berriz, % 65.

Bestalde, Lanbide Heziketako ikasketak egin dituztenek (erdi-mailako edo goi-mailako heziketa-zikloak) balorazioa hobea ematen diete ikasketa horiei unibertsitate-ikasketak egin dituztenek unibertsitate-ikasketei ematen dietena baino. Hain zuzen ere, Lanbide Heziketako ikasketak egin dituzten 20-29 urteko gazteen % 73,4ren iritziz, Euskadin egiten diren heziketa-zikloak oso onak edo nahiko onak dira. Unibertsitate-ikasketak dituzten 20-29 urteko gazteei dagokienez, % 63,3k diote Euskadin ematen diren unibertsitate-ikasketak oso onak edo nahiko onak direla.

3


3. ENPLEGUA

3.1. 25 urte bete aurretik, gazteen okupazio nagusia ikastea da; adin horretatik aurrera, gehienak lanean ari dira

16-29 urteko taldeko gazteen erdiaren baino gehiagoren okupazio nagusia ikastea da. 20 urteko adinetik behera, % 91,2 ikasten ari dira, eta txikiak dira lana okupazio nagusitzat dutenen edo beren burua langabetzat hartzen dutenen ehunekoak. 20-24 urtekoen taldean, % 62,4 ikasten ari dira oraindik, baina garrantzitsua da lana okupazio nagusitzat dutenen ehunekoa (% 23,8), bai eta langabezia-egoeran daudela dioten ehunekoa ere (% 11,3). Ikasten ari direnen ehunekoa asko jaisten da 25 urteko adinetik aurrera. Adin horretan, gazteen % 18,4 dira ikastea okupazio nagusitzat dutenak. Adin-talde horretan, lana da gehienek okupazioa (% 62,2), eta % 17,5 langabezia daude.

3.1 grafikoa


16-29 urteko gazteen okupazio nagusia, adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2016, datu-aurrerapena)

3.2 grafikoa

16-29 urteko gazteen okupazio nagusiaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak bilduma eta Emantzipazioa bilduma)

Prestakuntza-aldia luzatzea, krisiaren ondorioa da, bai eta krisiari aurre egiteko estrategia ere

Jarduera-tasa
hamar puntu jaitsi
da hamarkada
batean. 16-29
urteko
biztanleriaren erdia
soilik dago
biztanleria
aktiboan; hau da,
lanean edo lan
egiteko prest

Enplegu-tasa
apurka-apurka
hoberantz doa

Krisiaren hasieratik, ikusten da behera egin duela lana okupazio nagusitzat duten gazteen ehunekoa. Hala ere, 2015etik aurrera, zertxobait gora egin du ehuneko horrek.


3.2. Gazteen jarduera tasa % 49,1era arte jaitsi da

Gazteen jarduera-tasak 16-29 urteko pertsonen taldean lanean ari diren edo lana egiteko prest dauden pertsonen ehunekoa neurtzen du. Tasa horren jaitsierak, halaber, adierazten du 30 urtetik beherako kolektiboaren prestakuntza-aldia luzatu dela. 2006tik (egoera ekonomikoa eta enplegu-egoera oso onak ziren garai hartan), lanean ari diren edo lana egiteko prest dauden gazteen ehunekoak 10 puntuko beherakada izan du. Beraz, ezin da esan beherakada hori krisiak soilik eragin duela. 2016an, 16-29 urteko gazteen erdia soilik zeuden biztanleria aktiboaren barruan (% 49,1). Gizonen eta emakumeen tasen arteko aldeak oso txikiak dira (% 49,5 gizonak, eta % 48,6 emakumeak).

Euskadiko biztanleria osoaren jarduera-tasa % 56,9 izan da 2016an. Biztanleria osoaren jarduera-tasa, gazteen jarduera-tasa ez bezala, nahiko egonkorra izan da azken hamar urteetan.

3.3 grafikoa

16-29 urteko biztanleria gaztearen eta biztanleria osoaren jarduera-tasaren bilakaera (%)



Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

30-34 urtekoen taldean egoera asko aldatzen da, eta talde horretan, gehiengoa dira biztanleria aktiboan daudenak. 2016an, 30-34 urtekoen kolektiboaren jarduera-tasa % 92,1 izan da, zertxobait handiagoa gizonen artean emakumeen artean baino (% 94,3 eta % 89,9, hurrenez hurren).

3.3. Enplegu-tasak zertxobait egin du onera, baina krisiaren aurreko balioetatik urrun dago oraindik


Azken hamarkadan, gazte landunen ehunekoa (hau da, lana dutenen ehunekoa) izugarri jaitsi da. 2006an, gazteen % 54,9 lanean ari ziren, baina 2016an, gazteen % 37,5ek soilik zuten lana. 2013an izan zen gazteen enplegu-tasarik txikiena (% 35,5), eta ordutik hona, balio horrek zertxobait egin du hobera.

Jarduera-tasa eta enplegu-tasa alderatuz gero, ikusten da 2006an bi tasa horien arteko aldea 4,3 puntukoa zela; hau da, lan egin nahi zuten gazteen % 4,3k ez zuten enplegurik. 2016an, alde horrek gora egin du 11,6 puntura arte.

Krisiak eragin latza izan du gazteen artean batez ere. Izan ere, haien enplegu-tasa biztanleria orokorrarena baino askoz gehiago jaitsi da.

3.4 grafikoa

16-29 urteko biztanleria gaztearen eta biztanleria osoaren jarduera-tasaren bilakaera (%)



Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

2011tik aurrera, joera-aldaketa izan zen gizon eta emakume gazteen artean, eta emakumeen enplegu-tasak gizonenak baino zertxobait handiagoak izaten hasi ziren.

Enplegu-tasa bikoitza da 30-34 urtekoen adin-taldean, % 77,2k lana baitute. Kolektibo horretan, gizonen tasak emakumeenak baino handiagoak dira (% 78,5 eta % 75,9, hurrenez hurren).

Zenbat eta ikasketa-maila altuagoa izan, orduan eta handiagoa da enplegu-tasa. Lan egiten duten gazteen ehunekoa handiagoa da goi-ikasketak dituztenen artean (unibertsitate-ikasketak eta goi-mailako heziketa-zikloak) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasketak dituztenen artean baino (Batxilergoa edo erdi-mailako heziketa-zikloak) edo derrigorrezko ikasketak soilik dituztenen artean baino.


25-34 urte eta goi-mailako ikasketak dituztenen artean, 2015ean, lana da % 73,2ren okupazio nagusia. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondoko ikasketak dituztenen % 59,3 ari dira lanean, eta oinarritzko ikasketak dituztenen % 47,6. Joera hori izan da 2011-2015 aldian, 2013an hiru taldeetan jaitsiera izan arren, lan egiten duten gazteen ehunekoari dagokionez.

Enpleguaren beherakada handiagoa izan da gazteen artean biztanleriako gainerako taldeen artean baino

Ikasketa-maila zenbat eta handiagoa, orduan eta handiagoa da enplegu-tasa

3.5 grafikoa

25-34 urteko gazteen taldean, lana okupazio nagusitzat dutenen ehunekoaren bilakaera, ikasketak-mailaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa bilduma)

Lanbidek Lanbide Heziketako ikasketak amaitu dituzten ikasleei urtebeteren buruan egiten dien inkestek adierazten dute enplegu-tasak behera egin duela.

2007ko promozioaren enplegu-tasa % 87,6koa zen graduaziotik urtebeteren buruan; 2013an, berriz, 2012ko promozioa ikasleen % 61,2 zeuden lanean.

3.6 grafikoa

Lanbide Heziketako promozioen enplegu-tasaren bilakaera ikasketak amaitu eta urtebeteren buruan (%)



Iturria: Lanbide (2013an Lanbide Heziketa bukatu dutenen lan-munduratzeara)

2009tik 2013ra, beherakada handia izan zen Lanbide Heziketako ikasketak amaitu osteko lehen urtean lanean hasten direnen ehunekoan

Unibertsitate-ikasketen kasuan, 2009-2013 aldian, behera egin zuen, halaber, ikasketak amaitu osteko hiru urteko aldiari dagokion enplegu-tasak, baina hobetzen hasi da 2014tik aurrera

2013. urtera arteko bilakaera —urte horretakoa da azkeneko azterketa, 2012ko promozioari buruzkoa— negatiboa da Lanbide Heziketako arlo guztietan, baina aldeak daude ikasketa-adarren arabera. Oro har, enplegu-tasak handiagoak dira manufakturarekin, nekazaritzarekin eta industriarekin lotutako titulazioak lortu dituztenen artean.

2013an, ikasketak amaitu ondoren lana aurkitzeko behar zen batez besteko denborak gora egin zuen, asko: 110 egun, batez beste, aurreko promoziokoa 45,7 izanik.

Unibertsitateko ikasleen promozioen lan-munduratzearen azterketa ez da egiten titulazioa lortzen den osteko urtean (hala egiten da Lanbide Heziketako promozioekin), baizik eta ikasketak amaitu eta hiru urteren buruan. Hori dela eta, ez da egokia emaitza hauek zuzenean alderatzea Lanbide Heziketako ikasketak egin dituztenen emaitzekin.

Unibertsitate-ikasketak Euskal Herriko Unibertsitate publikoan amaitu dituzten pertsonen enplegu-tasari buruzko datuen bilakaerak erakusten du etengabeko jaitsiera egon dela 2009tik 2013ra (Lanbide Heziketako segidaren azken urtea), baina kasu honetan, ikusten da enplegu-maila berreskuratzen hasi dela 2013tik aurrera (ezin da datu hori aztertu Lanbide Heziketaren kasuan).

3.7 grafikoa

UPV-EHUko promozioen enplegu-tasaren bilakaera ikasketak amaitu eta hiru urteren buruan (%)



Iturria: Lanbide (*Unibertsitateko titulua duten pertsonak bizitza aktiboan sartzeari buruzko azterlana. UPV-EHUko 2012ko promozioa*)

Enplegu-tasarik altuena duten titulazioak hauek dira: osasunaren ezagutzako arlokoak (% 90,5), titulazio teknikoak (% 84,8) eta ekonomiko-juridikoak (% 81,1). Batezbestekotik behera daude adar hauetako ikasketak: gizarte-zientziak (% 76,2), humanitateak (% 70,9) eta, azkenik, ikasketa esperimentalak (% 67,4).

Azkenik, ikasketak amaitu ondoren lehen enplegua lortu arte bilatzen eman behar den batez besteko denborak gora egin du: 4 hilabete ziren 2009an, eta 8 hilabete, berriz, 2015ean.

Langabezia-tasak behera egin du, baina % 20tik gora dago oraindik, eta biztanleria osoaren tasaren ia bikoitza da


3.4. 2016an, langabezia-tasak behera egin du, baina hiru aldiz handiagoa da oraindik 2008ko tasa baino

2016ko amaieran, 16-29 urteko gazteen langabezia-tasa % 23,7 zen; hau da, lan egin nahi zuten lau gaztetatik batek ez zuen lanik. Langabezia-tasa biztanleria aktiboaren gainean kalkulatzeko da; hots, lanean ari den edo, enplegurik izan gabe, lan egiteko prest dagoen eta inkesta egin aurreko lau asteetan lana bilatzeko ahaleginen bat egin duen biztanleria. Zifra absolututan, 27.600 gazte izango lirateke 2016ko azken hiruhilekoan.

Azken hamarkadan, gazteen langabezia-tasa biztanleria osoaren langabezia-tasaren bikoitza izatera iritsi da, baina 2015etik, bi tasa horien arteko aldea murrizten ari da apurka-apurka.

3.8 grafikoa

16-29 urteko biztanleria gaztearen eta biztanleria osoaren langabezia-tasaren bilakaera (%)



Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

30-34 urteko pertsonen adin-taldean, 2016an, langabezia-tasa % 16,2 zen, biztanleria osoaren batez besteko ehunekoa baino hiru puntu handiagoa, baina 16-29 urteko gazteen langabezia-tasa baino zazpi puntu eta erdi txikiagoa.


2007tik, emakume gazteen langabezia-tasak gizonenak baino txikiagoak dira (2016an, % 21,9 eta % 25,5, hurrenez hurren). Gizonek baino hezkuntza-maila altuagoa duten emakumeen belaunaldi bat lan-merkatuan sartzea izan daiteke adin handiagoko taldearekiko alde horren arrazoia, talde horretan langabezia-tasa altuagoa baita emakumeen artean gizonen artean baino.

Langabezia-tasa txikiagoa da emakume gazteen artean gizon gazteen artean baino

Euskadiko langabezia tasa Espainiakoa baino txikiagoa da, baina 28en EBkoa baino handiagoa

3.9 grafikoa

16-29 urteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera, sexuaren arabera (%)




Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

Gutxi batzuetan izan ezik, gazteen langabezia-tasak handiagoak dira Bizkaian Araban edo Gipuzkoan baino.

2015ean, Euskadiko gazteen langabezia-tasa ia hamar puntu txikiagoa zen Espainiakoa baino, baina Europar Batasuneko 28 herrialdeen batezbestekoa baino handiagoa zen. Hiru lurralde-eremuetan, langabezia-tasek behera egin dute 2014tik 2015era.

3.10 grafikoa

16-29 urteko biztanleriaren langabezia-tasaren bilakaera Euskadin, Espainian eta 28en EBn (%)



Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA) eta EUROSTAT (Gazteei buruzko inkestak)

Iraupen luzeko langabezia-tasak behera egin du azken urtean, baina hamar aldiz handiagoa da krisiaren aurreko urteetako tasa baino

Behin-behinekotasun tasaren ehunekoa ia 16 puntu igo da 2009tik


Bestalde, iraupen luzeko langabezia-tasak adierazten du 16-29 urteko biztanleria aktiboaren zer ehunetik daraman ondoz ondoko hamabi hilabete baino gehiago langabezian. 2015ean, ehuneko hori % 10,7 zen, biztanleria osoaren ehunekoaren antzekoa (% 10,2). Iraupen luzeko langabeziak gehiago eragiten die gizon gazteei (% 11,3), emakumeei baino (% 10,2). Adierazle horrek erakusten du enplegua lortzeko bilatzen eman behar den denborak gora egin duela, eta lana lortzeko zailtasunak daudela. Nolanahi ere, adierazle horren balioak beherakada nabarmena izan du 2014ko datuarekiko (% 14,0 izatera heldu zen), baina askoz handiagoa da 2008ko balioa baino (% 0,7%).

3.5. Soldatapeko gazteen erdia baino gehiago enpleguaren behin-behinekotasunaren eraginpean daude

16-29 urteko gazte soldatapekoen % 57k aldi baterako kontratua dute. Euskadiko soldatapeko guztiak hartuta, % 24 dira aldi baterako kontratua dutenak. Bitxia bada ere, tasa horrek 2009an izan zuen baliorik txikiena, krisiaren hasieran, eta orduaz geroztik, gora egin du eta 2013an izan zuen segidako baliorik handiena. Gorakada hori orokorra izan da eta biztanleria osoan eragin du, baina eragin bereziki handia izan du gazteen kolektiboan.

3.11 grafikoa

Biztanleria osoaren eta 16-29 urteko gazteen behin-behinekotasun tasaren bilakaera (%)



Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

Ez dago alde handirik gizon eta emakume gazteen artean. Zertxobait handiagoa da behin-behinekotasun tasa gizon gazteen artean (% 52,1) emakume gazteen artean baino (% 50,4).

3.6. Lanaldi partzialeko enplegu-tasak hazkunde esponentziala izan du, emakumeen artean batez ere


Lanaldi partzialeko enplegu-tasak asteen 30 urtetik beherako lanaldia duten 16-29 urteko gazte landunen ehunekoa adierazten du. Gora egin du tasa horrek, eta 2015ean, % 30,7 izan da.

Lanaldi partzialeko enplegua hedatuago dago pertsona gazteen artean biztanleria landun osoaren artean baino, eta, gainera, azken urteotan, alde hori areagotzen ari da.

Gizon baino emakume gehiagok dute lanaldi partzialeko lana.

3.12 grafikoa

Lanaldi-partzialeko enplegu-tasaren bilakaera 16-29 urteko gazte landunen eta biztanleria landun osoaren artean (%)




Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

Emakumeen eta gizonen arteko aldea nabarmena da. Emakume gazte landunen % 37,5ek lanaldi partziala dute. Gizonen % 24k dute horrelako lanaldia. Emakumeen eta gizonen arteko alde hori Europan ere gertatzen da. 28en EBn, hain zuzen, batez beste, emakume gazteen % 31,1ek eta gizonen % 16,4k dute lanaldi partziala. Nolanahi ere, Euskadiko gizon eta emakume gazteen artean, lanaldi partzialeko enpleguaren tasak azken hamarkadan izan duen joera bera izaten jarraitzen du.

3.13 grafikoa

Lanaldi partzialeko enpleguaren bilakaera 16-29 urteko gazteen artean, sexuaren arabera (%)



Iturria: EUSTAT (Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA)

Gehienentzat,
lanaldi partziala
ez da borondatez
hautatua

Emakumeek
gizonek baino
soldata
txikiagoak dituzte

Gazteen Euskal Behatokiak Gazteak eta enplegua Euskadin 2015 txostenean argitaratutako datuen arabera, Euskadin lanaldi partzialean ari diren gazteen ia bi herenek (% 62,6) diote horretan ari direla lanaldi osoko lanarik aurkitu ez dutelako. % 17,2k diote beren borondatez ari direla lanaldi partzialean; % 3,8k diote familia-betebeharrek bultzatuta eskatu dutela lanaldi partziala; eta, azkenik, % 3,1ek diote enpresak ezarritako ordu-murrizketa dutela edo enplegu-erregulazioko espediente batean sartuta daudela.

Lanaldi osoko enplegua aurkitu ez izana da lanaldi partzialean aritzeko arrazoi nagusia, bai gizonen artean bai emakumeen artean. Gizonek emakumeek baino gehiago aipatzen dute arrazoi hori lanaldi partzialaren azalpen gisa (% 67,1 eta % 60,3, hurrenez hurren), eta emakumeek, berriz, gizonek baino gehiago aipatzen dituzte familia-betebeharrak (% 5,1 eta % 1,3, hurrenez hurren).

Borondatez aukeratu ez den lanaldi partzialeko enplegua askoz hedatuago dago Euskadin 28en EBn baino. EBn, 2015ean, lanaldi partziala zutenen % 33,8 lanaldi hori beren borondatez aukeratu gabe zeuden egoera horretan.

3.7. Gazte landunen hileko batez besteko soldata 1.000 euro ingurukoa da


16-29 urteko Euskadiko gazte landunen hileko batez besteko soldata 1.000 euro ingurukoa da (996 euro, hain zuzen).

Lanaldi osoan jarduten dutenek hilean 1.195 euro kobratzen dituzte batez beste, eta lanaldi partzialean jarduten dutenek, berriz, hilean 605 euro.

Emakumeek, batez beste, gizonek baino gutxiago kobratzen dute (867 euro eta 1.125 euro, hurrenez hurren). Lanaldi partzialaren eragina alde batera uzten badugu —hedatuago dago emakumeen artean— eta lanaldi osoan jarduten dutenak soilik hartzen baditugu kontuan, ikusten da soldata-aldeak ez direla desagertzen: gizonek, batez beste, 1.242 euro kobratzen dituzte, eta emakumeek, berriz, 1.119 euro.

3.14 grafikoa

16-29 urteko gazte landunen batez besteko soldata, sexuaren eta lanaldi-motaren arabera (€)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Gazteak eta enplegua Euskadin 2015)

Oro har, soldatek hobera egin dute zertxobait 2013ko datuekiko, baina gizonen batez besteko soldata soilik igo da; izan ere, emakumeen lanaldi partzialen ondorioz, haien batez besteko soldatak behera egin du aurreko urteekiko.

2004tik, lan egiten duten gazteen enplegu enkajatuko tasa % 50 ingurukoa da

Hamar gazte landunetatik lauk hilean 1.000 eurotik behera kobratzen dute. Emakumeen kasuan, erdia baino gehiago dira (emakume landunen % 55,9 dira; gizon landunen artean, berriz, % 31,0 dira).

30-34 urteko pertsona landunen batez besteko soldata hilean 1.242 euro da, 16-29 urteko taldearen batez besteko soldata baino 246 euro gehiago.

3.8. Lan egiten dutenen erdiak soilik dute beren prestakuntzarekin lotutako lana


Gazte landunen % 52,7k diote beren lanak lotura handia edo nahiko handia duela egin dituzten ikasketekin. Ia erdiak (% 46,7), berriz, diote egiten duten lanak lotura txikia duela edo ez duela batere loturarik egin zituzten ikasketekin.

Enplegu enkajatuaren adierazlean aldaketa gutxi egon dira 2004tik 2015era —lanaren eta ikasketen arteko lotura neurtzen du parametro horrek—. Adierazle hori % 50etik gertu egoten da beti.

Ez dago alde nabarmenik gizonen eta emakumeen artean.

3.15 grafikoa

Enplegu enkajatuaren bilakaera lana okupazio nagusitzat duten 16-29 urteko gazteen artean (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatoki (*Euskadiko gazteak bilduma eta Emantzipazioa bilduma*)

3.9. Norberaren konturako enplegua urria da, eta autoenplegua baliatzeko jarrera ere minoritaria da

Gazte landun gehienek besteren kontura egiten dute lan (% 93,6). Norberaren konturako lanaren ehunekoa txikia da (% 6,2), dela langile autonomo gisa, dela enpresaburu gisa.

Besteren kontura lan egiten dutenetik % 80,6k enpresa pribatuan jarduten du. Sektore publikoan % 10,5ek jarduten dute (% 5,5ek administrazioa publikoan, eta % 5ek, berriz, enpresa publiko batean). Bestalde, % 3,7k kooperatiba batean egiten dute lana, % 3,3k etxe-zerbitzuan, eta % 0,6k, berriz, GKE batean edo irabazi-asmorik gabeko erakunde batean.

Gazte gehienek
besteren kontura
egiten dute lan

20-29 urteko
pertsona
landunen
% 6,3k
norberaren
kontura egiten
dute lan


Hamar
pertsonatik
batek
ekintzailtzari
heldu dio edo
horri heltzea
pentsatzen ari da

Gizon baino emakume gehiago daude administrazio publikoan (% 7,2 eta % 3,5, hurrenez hurren) eta etxe-zerbitzuan (% 6,3 eta % 0,6, hurrenez hurren). Hala ere, gazte atzeritarren presentzia nabarmentzen da etxe-zerbitzuan (% 18,2; EAEn jaiotako gazteak % 0,2 dira).

20-29 urteko gazte landunen artean, norberaren konturako lanean jarduten dutenak % 6,3 dira. Ehuneko hori eta 28en EBko herrialdeetako batezbestekoa oso antzekoak dira. (EUROSTATen definizioan, norberaren konturako langiletzat edo enpresaritzat jarduten dutenez gain, negozioa martxan jartzeko prozesuan daudenak ere sartzen dira). Zaila da negozio bat martxan jartzeko behar diren baldintzak, esperientzia, babes ekonomikoa eta abar lortzea 30 urte bete baino lehen. Euskadin, 30-34 urteko adin-taldean, pertsona landunen % 12,2k norberaren kontura jarduten dute, dela enpresa propioa izanda, dela autonomo gisa.

3.16 grafikoa

Norberaren konturako enpleguaren bilakaera 20-29 urteko biztanleriaren artean, Euskadin eta 28en EBn (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak bilduma eta Emantzipazioa bilduma eta EUROSTAT (Gazteei buruzko estatistikak)*)

Euskadiko 16-29 urteko gazte gehien-gehienek ez dute inoiz aintzat hartu beren kontura lan egiteko aukera (% 70,9).


Aitzitik, 16-29 urteko gazteen % 2,4k diote norberaren konturako langileak edo enpresariak direla, eta % 8,5 aukera hori benetan aztertzen ari dira. Bestalde, % 16,1ek aintzat hartu dute bide hori eta norberaren kontura lana egiteko aukera ez baliatzea erabaki dute, eta % 1,2k lehenago egin dute lana autonomoen araubidean edo enpresari gisa, baina jada ez daude egoera horretan. Beraz, esan daiteke, 2015ean autoenplegurako prest dauden gazteak % 28,2 direla.

Autoenpleguarekiko jarreraren ez da aldaketa handirik egon 2011. urteko datuen aldean, eta 2013an soilik izan zuen igoera txiki bat; hain zuzen ere, % 33,8ra iritsi zen urte hartan (hamarkadako datu okerrenak izan ziren lan-egoerari buruzko adierazleetan).

16-29 urteko hamar gaztetatik zazpik ez dute inoiz pentsatu autoenpleguaren aukera erabiltzea

Lan istripuak askoz ohikoagoak dira gizonen artean emakumeen artean baino

3.17 grafikoa
Autoenpleguarekiko jarreraren bilakaera 16-29 urteko gazteen artean (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Gazteak eta enplegua Euskadin 2015*)

25-29 urtekoen taldean, gehiago daude autoenplegurako prest (% 35,2), 16-24 urtekoen taldean baino (% 23,1).


Emakumeen eta gizonen arteko aldeak ez dira hain handiak: gizonen % 30,2 eta emakumeen % 26,2 daude ekintzailetzarako prest.

3.10. Azken hamarkadan nabarmen behera egin du gazteen lan-istripuen kopuruak Euskadin

16 eta 34 urte bitarteko langileen lan-istripuek nabarmen egiten dute behera adin bereko 1000 pertsona okupatuko. Gizonen artean lan-istripuen indizea altuagoa da emakumeen artean baino, neurri handi baten zenbait sektoreetan duten presentzia handiagoagatik.

3.18 grafikoa

16 eta 34 urte bitarteko gazte okupatuen lan-istripuen indizearen bilakaera, sexuaren arabera (tasa, adin tarte bereko 1.000 pertsona okupatuko)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokiak egina, OSALANen (*Lan-istripuen estatistika*) eta EUSTAT (*Biztanleria jardueraren arabera sailkatze inkesta, BJA*)

4

Batez beste, Euskadiko gazteak 29,9 urterekin emantzipatzen dira, nahiko luketen adinean baino ia sei urte geroago

Emakumeak gizonak baino lehenago emantzipatzen dira

18-34 urteko hamar gaztetatik lau emantzipatuta daude

4. EMANTZIPAZIOA ETA ETXEBIZITZA


4.1. Euskadiko gazteek beren gurasoekin bizitzeari uzten dioten batez besteko adina Europako altuenetako bat da

Euskadiko biztanleen batez besteko emantzipazio-adina 30 urteren ingurukoa da (29,9 hain zuzen), 15-29 urteko gazteek emantzipatzeko egokitzat jotzen duten adina (24,2) baino sei urte gehiago.

Batez besteko emantzipazio-adin hori lau urte handiagoa da Europako batezbestekoa baino (26,1 urte).

4.1 grafikoa

Batez besteko emantzipazio-adina Euskadin eta European



Iturria: EUSTAT (Inkesta demografikoa 2011) eta EUROSTAT (Gazteei buruzko estatistikak 2015)

Euskadiko emakumeak, batez beste, gizonak baino bi urte lehenago emantzipatzen dira: emakumeak 28,8 urterekin emantzipatzen dira, eta gizonak, berriz, 30,8 urterekin.

Emantzipazio-adin handi hori dela eta, gazteek etxebizitza-gaietan duten egoeraren diagnostikoa egiteko, adin-tarte handiagoa hartu da, 18 urtetik 34 urtera bitartekoa, hain zuzen ere.


4.2. 18-34 urteko pertsonen taldean, emantzipazio-tasa % 40,9 da

Adin-tarte horretan, pertsona gazte emantzipatuak erdia baino gutxiago dira. Nolanahi ere, alde handiak daude adinaren arabera: 25 urte bete aurretik, Euskadiko gazteen % 5,5 baino ez daude emantzipatuta; 25-29 urteko tartean, % 39,5; eta 30-34 urteko tartean, berriz, gehienak emantzipatuta daude (% 75,3).

18-34 urtekoen taldean, gehiago dira emakume emantzipatuak (% 47,0) gizon emantzipatuak baino (% 34,8).

4.2 grafikoa

18-34 urteko biztanleriaren emantzipazio-tasa, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2015)

Datu horien bilakaerari erreparatuz gero, ikusten da 2015eko emantzipazio-tasa 2007ko emantzipazio-tasaren berdina dela (% 40,9 izan zen urte hartan ere). Krisi ekonomikoaren ondorioz egoera aldatu bada ere, gazteek emantzipazioa atzeratzen duten zailtasunak izaten jarraitzen dute: krisia baino lehenago, etxebizitza garesti egotea zen zailtasun nagusia, eta orain, etxebizitzaren salerosketa-prezioak jaitsi diren arren, sarritan, gazteen ahalmenetik kanpo daude; izan ere, gaur egun, gazteen enplegu-tasak lehen baino txikiagoak izateaz gain, soldata kaskarrak jasotzen dituzte gazteek.

Euskadin, 2015ean, emantzipazio-tasa Espainiako tasaren antzekoa zen adin-talde berean (% 41,6).

4.3. Etxebizitzaren prezioak behera egin badu ere, gazteentzat, emantzipatzeko arazo nagusia etxebizitza garesti egotea da oraindik ere

Etxebizitza libreen salerosketa-prezioek behera egin dute Euskadin azken urteotan. 2007an, etxebizitza librearen prezioa, erosteko, 279.702 eurokoa zen; 2015ean, berriz, 196.053 eurokoa zen. Baina alokairu libreko errenten batez besteko zenbatekoa gutxi aldatu da: 2007an, hilean 890 euro zen, eta 2015ean, berriz, hilean 872 euro.

Hori dela eta, 2015ean, batez besteko soldataren parekoa duen soldatapeko pertsona gazte batek soldataren % 53,4 erabili beharko luke hipoteka-mailegu baten lehen kuota berak bakarrik ordaintzeko (urte horretan kontratatutako hipoteka-kredituetako batez besteko iraupen-baldintzak eta interes-tasetako baldintzak kontuan hartuta), etxebizitza bat adierazitako batez besteko prezio horretan erosi ahal izateko. Etxebizitza jabetzan eskuratzeko kostua deritzo horri. Alokatzeari hautatuz gero, hileko gastua handiagoa izango litzateke oraindik ere, pertsona horrek soldataren % 63,8 erabili beharko bailuke alokairu-errenta ordaintzeko (etxebizitza alokairuan hartzeko kostua).

Etxebizitza libreen salerosketako batez besteko prezioaren jaitsierak etxebizitza librea erosteko bidez eskuratzeko kostua merkatzea eragin du, % 98,9tik (2007an; hau da, krisi ekonomikoaren hasieraren aurretik, higiezinaren boomaren une gorenean) % 53,4ra (2015). Alokairuaren kasuan, errenten merkatu-prezioan jaitsiera egon ez denez, etxebizitza alokairuan hartzeko kostua soldataren % 60-% 70 izango litzateke aztertutako urteetan.


Nolanahi ere, zifra horiek askoz handiagoak dira finantza-erakundeek kredituak emateko aholkatzen duten gehieneko zorpetze-maila baino (soldataren % 30).

Soldatapeko gazte batek, bakarrik emantzipatu nahi izanez gero, soldataren erdia baino gehiago erabili beharko luke hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko

Enplegua ez dutenak (gehiengoa dira 30 urtetik beherakoen artean) ondasun higiezin merkatutik at geratzen dira zuzenean

4.3 grafikoa

18-34 urteko pertsona batek hileko hipoteka-kuota edo alokairu-errenta berak bakarrik ordaintzeko erabili beharko lukeen soldataren ehunekoaren bilakaera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Etxebizitza-emantzipazioaren kostua Euskadin 2015)

Emakumeek eta 30 urtetik beherako pertsonak (haiek dituzte, batez beste, soldata txikiak) esfortzu ekonomiko are handiagoa egin behar dute. Gipuzkoan bizi diren pertsonak dituzte kostu handienak, lurralde horretan etxebizitza garestiago dagoelako.

Ikusita zer prezio duen etxebizitzak merkatu librean, dela erosteko, dela alokatzeko, eta gazteek soldataren zer ehuneko erabili beharko luketen hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko, ez da harritzekoa gazte gehienek aipatzea etxebizitza garesti egotea izan dela emantzipatzeko orduan izan duten arazorik nagusia. Emantzipatutako pertsonen erdiak baino gehiagok diote arazo hori izan dutela (% 58,1), eta emantzipatu nahi bai, baina oraindik emantzipatu ez diren hamar pertsonatik zortzik aipatzen dute (% 80,6).

4.4 grafikoa

Emantzipatzeko zailtasun nagusiak 18-34 urteko pertsonen taldean, 2015ean, emantzipazio-egoeraren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa bilduma)

35 urtetik
beherako
pertsonek
emantzipatu
erdia baino
gehiago
alokairuan
bizi dira

Etxebizitza
babestua
eskuratzeko
eskaera egin
duten gazteen
ehunekoa
zertxobait
jaitsi da

Bestalde, gehiengoak dira diru-sarrera propioak izateko zailtasuna beren emantzipazioarako oztopoa izan dela dioten pertsona gazteak. Izan ere, EUSTATen 2016ko Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestako datuen arabera, 30 urte bete aurretik (16-29 urteko taldea), enplegu-tasa % 37,5 da; hau da, gazteen heren batek baino zertxobait gehiagok dute lana. Horrenbestez, gehienek ez dute diru-sarrera propiorik. 30-34 urtekoen taldean, pertsona landunen ehunekoa handiagoa da eta % 77,2ra arte iristen da. Nolanahi ere, lana izateak ez du bermatzen emantzipatu ahal izateko behar adina diru-sarrera izango direnik.

Gazteek emantzipatzeko aipatzen duten hirugarren oztopo nagusia banku-kredituak lortzeko zailtasuna da. Kontuan izan behar da banketxeek, krisi ekonomikoa hasi ondoren, kredituak emateko baldintza gogorragoak jarri zituztela. Besteak beste, lan-egonkortasuna eta diru-sarrerak (aurrezkiak eta/edo abalez gain) izatea eskatzen zuten, eta gazteen artean aldi baterako eta lanaldi partzialeko enplegua hain hedatuta daudenez, zaila da baldintza horiek betetzea.


4.4. Alokatzearen aldeko aukerak gora egin du azken urteetan, asko, eta gazteen gehiengoaren emantzipazio-aukera nagusi bihurtu da

Alokairuan emantzipatutako 18-34 urteko pertsona gazteen ehunekoa asko handitu da azken hamar urteetan: 2006an, gazte emantzipatuen % 19,0 alokatutako etxebizitza batean bizi ziren; 2015ean, ehuneko hori % 55,3ra iritsi da.

Alokairuaren alde egiten dute modalitate horretan emantzipatutako pertsona gazte gehienek, baina horrez gain, alokatzearen alde daude gurasoekin bizi diren gazte emantzipatu gabe gehienak: 2015ean, talde horretako pertsonen % 56,1ek etxebizitza alokairuan hartzea hautatuko lukete.

4.5 grafikoa

18-34 urteko pertsonen taldean alokairuan emantzipatu diren pertsonen eta alokairuaren alde egiten duten pertsona emantzipatu gabeen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: EUSTAT (Inkesta demografikoa) eta Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa bilduma)

4.5. Ehun gaztetatik ia batek lortzen du urtean etxebizitza publiko bat

Etxebide Etxebizitzaren Euskal Zerbitzuan etxebizitza babestuen eskatzaile gisa izena emanda dauden 18-34 urteko gazteen kopuruak behera egin du, 66.700etik (2009) 46.255era (2013). Halaber, etxebizitza babestuen eskatzaile guztien artean zuten proportzioak ere behera egin du (eskatzaile guztien % 59,6 ziren 2009an, eta % 43,8, berriz, 2013an).

Emantzipatutako hamar gaztetik bat etxebizitza babestu batean bizi da


Emantzipatutako lau gaztetatik batek zailtasunak dauzka etxebizitza-gastuak ordaintzeko

Eskaera horietatik % 51,5ean alokairuko etxebizitza eskatzen da, eta % 48,5ean, berriz, etxebizitza jabetzan eskuratu nahi dute. Kontuan izan behar da etxebizitza-eskatzaile gisa izena eman ahal izateko gutxieneko diru-sarrera haztatu jakin batzuk frogatu behar direla (3.000 eurotik 12.000 eurora bitartean, eskatzen den etxebizitzaren edukitza-erregimenaren arabera), eta etxebizitza alokairuan lortzeko eskatzen diren gutxieneko diru-sarrerak txikiagoak direla jabetzan lortzeko eskatzen direnak baino.

Etxebizitza babestu baten esleipendunen kopuru absolutuak ere behera egin du 18-34 urtekoen taldean: 4.968 ziren 2009an, eta 3.184, berriz, 2013an. Hala ere, kontuan izan behar da biztanle gazteen kopuruak behera egin duela azken urteotan; horregatik, etxebizitza babestua esleitu zaien gazteen proportzioa ez da asko aldatu adin-tarte horretako gazte guztiekiko.

4.6 grafikoa

Etxebizitza babestuaren eskatzaileen eta esleipendunen ehunekoaren bilakaera 18-34 urteko pertsonen taldean, adin horretako pertsona guztiekiko (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren (*Biztanle gazteak eta etxebizitza-beharrak EAEn 2014*) eta EUSTATen biztanleria-datuak oinarri hartuta

Nolanahi ere, bereizi egin behar dira, batetik, urte jakin batean etxebizitza babestua esleitzen zaien pertsonen kopurua, eta, bestetik, etxebizitza babestuan bizi diren gazteen ehunekoa. Azken datu horretarako, berdin da etxebizitza zer urtetan esleitu den, eta gainera, pertsona bat etxebizitza babestuan bizi izateak ez du esan nahi pertsona hori etxebizitzaren esleipenduna izan denik, esleipenduna beste norbait izan baitaiteke, bikotekidea kasu. Inkestek erakusten dute pertsona gazte emantzipatu gehienak bikotekidearekin bizi direla. Etxebideko erregistroetan, berriz, etxebizitza babestua lortzeko eskaera gehienak norberaren izenean egiten dira. 2015ean, 18-34 urteko hamar pertsona emantzipatutatik batek zioen etxebizitza babestu batean bizi zela, jabetza- edo alokairu-erregimenean (adin horretako pertsona emantzipatu guztien % 9,1, Gazteen Euskal Behatokiako Emantzipazioa seriean jasotako datuen arabera).

4.6. Emantzipatutako bost pertsona gaztetatik bat gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dago hipotekaren edo alokairu-errentaren ordaintzari aurre egiteko

2015ean, 18-34 urteko pertsona emantzipatuen % 21,3k diote etxeko diru-sarreretatik % 40 baino gehiago erabiltzen dituztela hipoteka-kuota edo alokairu-errenta ordaintzeko. Hori gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran egotea da. Gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden ehunekoa antzekoa da 2015ean eta 2013an (% 21,4), eta behera egin du 2011ko ehunekoaren aldean (% 25,9).


Bestalde, emantzipatutako pertsonen % 24,4k diote arazoak dituztela etxebizitza-gastuak ordaintzeko. Lehen aipatutako gastuez gain, beste ohiko gastu batzuk sartzen dira etxebizitza-gastuetan: argindarra, ura, gasa, jabekideen erkidegoaren komunitateko kuota eta abar. Etxebizitza-gastuak ordaintzeko zailtasunak dituzten gazteen ehunekoa zertxobait jaitsi da 2013ko ehunetik (% 26,5).

Gazteen
% 2,8k familiaren
etxera itzuli
behar izan dute
arrazoi
ekonomikoek
bultzatuta

35 urtetik
beherakoak buru
dituzten
etxebizitzetan
duten pobrezia-
arriskua
batezbesteko-tik
gorakoa da

4.7 grafikoa

18-34 urteko pertsona gazte emantzipatuen taldean, gehiegizko esfortzu ekonomikoko egoeran dauden eta etxebizitza-gastuei aurre egiteko zailtasunak dituztenen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Emantzipazioa bilduma)

Zailtasun ekonomikoen ondorioz (dela lanik gabe geratu direlako, dela etxebizitza-gastuei aurre egin ezin dietelako), 18-34 urteko gazteen % 2,8k familiaren etxebizitzara itzuli behar izan dute, emantzipatuta egon ondoren. 2015eko ehunekoa 2013koa (% 3,1) baino zertxobait txikiagoa da, eta 2011koa (% 2,3) baino zertxobait handiagoa.

4.7. EAEn, 35 urtetik beherakoak buru dituzten familietako pertsonen % 15,3 benetako pobrezia-egoeran daude

Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Pobreziaren eta gizarte- ezberdintasunen inkestako metodologiaren arabera, 2016an, 35 urtetik beherakoak buru dituzten familietako Euskadiko biztanleen % 15,3 benetako pobrezia-egoeran daude. Beraz, pobrezia-egoeran daude oinarritzko premiei (elikadurarako, etxebizitzarako, oinetakoetarako eta jantzietarako gastuekin lotutako premiak batik bat) aurre egiteko behar adina diru-sarrera edo ondare ez dituzten familiak.

Familia gazteetan (hau da, 35 urtetik beherakoak buru dituzten familiak) pobrezia errealeko egoeran bizi diren pertsonen ehunekoak behera egin zuen 2000-2004 aldian, enpleguak hobera egitearekin batera, dezente handitu zen 2012an (krisi ekonomikoaren garaian), zertxobait jaitsi zen 2014an, baina berriro igo da 2016an.


Familia gazteen artean, Bizkaian da pobrezia-tasarik handiena (% 19,0), eta Araba dago atzetik (% 16,1). Tasarik txikiena Gipuzkoan da (% 9,9).

35 urtetik beherakoak buru dituzten familien pobrezia errealeko tasa eta familia guztien (familiaburuaren adina kontuan hartu gabe) pobrezia-tasa alderatzen baditugu, ikusiko dugu pobrezia eragin handiagoa duela gazteen artean, eta hori ez da unean-uneko kontua, baizik eta konstante bat aztertutako segida osoan.

25-29 urtekoen taldean, urtebeteko epean beren kontura bizitzerik izango ez dutela uste dutenen ehunekoa zertxobait jaitsi da 2015eko datuarekiko, baina hamar puntu handiagoa da 2013ko datua baino

4.8 grafikoa

Pobrezia errealearen tasaren bilakaera, 35 urtetik beherakoak buru dituzten familietan eta biztanleria osoan (%)




Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (*Pobreziaren eta gizarte-ezberdintasunen inkesta*)

4.8. 25-29 urteko hamar gaztetatik lauk uste dute beren emantzipazio-espektatibak zapuztu egingo direla urtebeteko epean

2016an, 25-29 urteko gazteen % 41,9k uste dute emantzipatzeko beren itxaropenak zapuztuko direla —kolektibo hori, ustez, emantzipatuta egon beharko luke edo epe laburrean emantzipatu beharko luke—. Gehienek (% 40,0) uste dute urtebeteko epean familiaren etxetik independizatzea ezinezkoa suertatuko zaiela, eta gainerakoek (% 1,9), berriz, familiaren etxera itzuli beharko dutela, beren borondatearen kontra, orain beren kontura bizitzen egonda ere. Zapuztutako emantzipazioaren ehunekoa hamar puntu baino gehiago handitu zen 2013tik 2015era, eta zertxobait jaitsi da 2016ean, baina 2013ko eta 2014ko zifretatik gorakoa da oraindik ere.

4.9 grafikoa

Zapuztutako emantzipazio-espektatibaren ehunekoaren bilakaera 25-29 urteko pertsonen artean (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Aurrera Begira* bilduma)

5

5. OSASUNA

Gazteek beren osasunaren balorazio positiboa egiten dute

Emakume gazteek antzietate- eta depresio-arazo gehiago dituzte gizon gazteek baino

Gizon gazteek emakume gazteek baino jarduera fisiko gehiago egiten dute, eta 20 urtetik beherako neska-mutilek, berriz, besteek baino gehiago


5.1. Gazte gehienek uste dute osasun ona dutela. Hala ere, bost pertsona gaztetatik batek osasun-arazo kronikoak ditu eta hamar gaztetatik batek antzietatea eta/edo depresioa du

15-29 urteko gazteen taldean, % 4,6k baino ez dute uste beren osasuna erdipurdikoa, txarra edo oso txarra dela, baina gazteen % 20,7k nolabaiteko osasun-arazoak dituzte, kronikoak, iraunkorrak, iraupen luzekoak edo maiz gertatzen direnak (asma, diabetesa...), eta % 13,7k antzietate- eta/edo depresio-arazoak dituzte.

Adina zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gazte gehiagok diote beren osasuna ona ez dela: 15-29 urtekoen taldean, % 1,5ek diote hori, eta 25-29 urtekoen taldean, berriz, % 7,2k.

Gaixotasun kronikoek edo antzietate- eta/edo depresio-arazoek ez dute gora egiten adinean aurrera egin ahala, baina eragin handiagoa dute (edo, behintzat, hala aitortzen dute) emakumeen artean gizonen artean baino.

5.1 grafikoa
Osasun-aldeak 15-29 urteko gizon eta emakume gazteen artean (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (*Euskal Osasun Inkesta 2013*)

Datu horietan ez da ia aldaketarik egon azken hamar urteotan.

Euskadin, beren osasuna erdipurdikoa, txarra edo oso txarra dela dioten gazteen ehunekoa txikiagoa da Europako batezbestekoa baino (2013an, % 8,2).

5.2. Lau gaztetatik hiruk jarduera fisiko osasungarria egiten dute

15-29 urteko lau gaztetatik hiruk (% 75,3) diote jarduera fisiko osasungarria egin dutela galdeketaren aurreko astean, dela modu neurritsuan, dela intentsitate handiz. Gazteen jarduera fisikoak, kirola egitea baino modu zabalagoan ulertuta, gora egin du 2007tik (% 67,6) 2013ra (% 75,3).


Jarduera fisiko osasungarria egiten duten gizon gazteen ehunekoa handiagoa da emakumeena baino, eta jarduera fisiko hedatuago dago gazteen adin-taldean.

Jarduera fisikoek gora egin badute ere, obesitate-tasa handitu egin da

Gazteen obesitate-tasa Euskadiko biztanleria osoarena baino txikiagoa da

5.2 grafikoa

Jarduera fisikoaren praktikaren aldeak 15-29 urteko gazteen artean, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (*Euskal Osasun Inkesta 2013*)


5.3. Obesitate-tasa txikia da, baina gora egiten ari da azken urteotan

15-29 urteko gazteen % 5,4 obesoak dira; hau da, haien gorputz-masaren indizea 30etik gorakoa da. Neska eta mutil obeso gazteen ehunekoa geldo baino etengabe ari da gora egiten: 2002an, % 3,4 ziren; 2007an, % 4,2; eta 2013an, berriz, % 5,4. Nolanahi ere, gazteen artean, pertsona obesoaren ehunekoa txikiagoa da Euskadiko biztanleria osoaren artean baino (% 13,2).

Behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klaseko pertsona gazteen artean handiagoak dira obesitate-zifrak goi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klaseko pertsona gazteen artean baino (% 7,4 eta % 3,5, hurrenez hurren). Obesitatean eragin handiagoa du gizarte-klaseak sexuak edo adinak baino. Gazteen Euskal Behatokiaren Euskadiko gazteak 2016 txostenaren arabera (argitaratu gabe dago oraindik), behe-mailako edo maila ertain baxuko gizarte-klaseko pertsonen artean handiagoak dira elikadura desorekatua dutenen ehunekoa (% 27,7) beren burua goi-mailako edo maila ertain altuko gizarte-klasekotzat hartzen dutenen artean baino (% 8,1). Jarduera fisikoari buruzko zifrak antzekoak dira bi taldeetan; beraz, ondoriozta daiteke haien obesitatea elikaduraren ondorio dela.

5.3 grafikoa

15-29 urteko gazteen obesitate-tasaren bilakaera, eta tasa horren eta biztanleria osoaren tasaren arteko alderaketa (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (*Euskal Osasun Inkesta bilduma*)

Alkoholaren
gehiegizko
kontsumoak
behera egin du
gazteen artean

5.4. Lau pertsona gaztetatik batek alkoholaren gehiegizko kontsumoa edo kontsumo arriskutsua egin du galdeketaren aurreko hilabeteko egunen batean


2012an (Euskadi eta drogak serieko azken txostena), 15-29 urteko biztanleen % 24,5ek alkohol gehiegi kontsumitu zuten edo alkoholaren kontsumo arriskutsua egin zuten egunen batean, galdeketaren aurreko hilabeteko epearen barruan. Horrek esan nahi du hilabete horren barruko egunen batean (laneguna edo jaieguna izan) 65 gramo alkoheletik gora kontsumitu zituztela (zortzi kaña garagardo, esaterako).

2012an, alkohol gehiegi kontsumitu zutela edo alkoholaren kontsumo arriskutsua egin zutela zioten gizon gazteen ehunekoa (% 32,6) emakumeen ehunekoaren bikoitza zen (% 16,6).

Gehiegizko kontsumo edo kontsumo arriskutsu horrek behera egin du 2004ko kontsumoaren aldean, baina 2010ekoa baino zertxobait handiagoa da. Biztanleria orokorrean joera berdina dago, baina abiapuntuko zifrak askoz txikiagoak ziren.

5.4 grafikoa

Galdeketaren aurreko hilabeteko egunen batean alkoholaren gehiegizko kontsumoa edo kontsumo arriskutsua egin dutenen ehunekoaren bilakaera, 15-29 urteko gazteen taldean eta biztanleria osoan (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (*Euskadi eta drogak* bilduma)

Alkohola kontsumitzen hastearen batez besteko adina 16 urte da (16,4), baina gazteen herenak (% 34,9) diote adin hori baino lehenago hasi direla. Batez besteko adin hori gutxi aldatu da azken urteotan; 2000. urtean, 17,1 urtekoa zen.

5.5 Tabakoaren kontsumoak behera egin du eta, lehen aldiz, 15-74 biztanleriaren batez besteko kontsumotik behera dago

15-29 urteko gazteen ia laurdena (% 23,5) ohiko tabako-erretzaileak dira. Gizon erretzaile gehiago daude emakume erretzaile baino (% 26,6 eta % 20,4 hurrenez hurren).


2000tik 2012ra bitartean, hamar puntu baino gehiago jaitsi da ohiko tabako-erretzaileak direla dioten gazteen ehunekoa. Ehuneko hori % 35,4 zen 2000. urtean eta % 23,5ekoa, berriaz, 2012n.

2012ra arte, ohiko erretzaileen ehunekoa handiagoa zen gazteen artean 15-74 urteko biztanleriaren artean baino. 2012an, berriaz, lehen aldiz, handiagoa zen ohiko erretzaileen ehunekoa biztanleria orokorraren artean (% 25,7) gazteen artean baino (% 23,5).

Tabakoa kontsumitzen hasteko adinak ia bere horretan jarraitzen du: 17 urte, batez beste, 2012an, eta 16,9 urte 2000. urtean.

2012an, lau
pertsona
gaztetatik bat
ohiko erretzailea
zen


5.5 grafikoa

Ohiko erretzaileen ehunekoaren bilakaera 15-29 urtekoen taldean eta biztanleria osoan (%)Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (*Euskadi eta drogak bilduma*)**5.6. Halaber, cannabisaren kontsumoa nabarmen jaitsi da**

2012an, 15-29 urteko Euskadiko gazteen % 4,3k zioten cannabis egunero edo ia egunero (asteen lau egunetan edo gehiagotan) erre zutela inkestaren aurreko hilabetean. Alkoholarekin edo tabakoarekin gertatzen den bezala, cannabisaren kontsumoa hedatuago dago gizon gazteen artean (% 7,6) emakume gazteen artean baino (% 1,7).

Cannabisaren kontsumoa hedatuago dago gazteen artean Euskadiko biztanleria orokorrean baino. Nolanahi ere, kontsumo hori asko murriztu da, eta 2012an cannabis erretzen zutenak 2008an erretzen zutenen erdia ziren. Hain zuzen, 2008an izan zen handiena cannabisaren kontsumoaren ehunekoa (% 11,0). Kontsumo horretan hasteko batez besteko adina gutxi aldatu da azken urteotan: 19,1 urte 2000n, eta 18,6 urte 2012an.

5.6 grafikoa

Egunero edo ia egunero cannabis erretzen dutenen ehunekoaren bilakaera, 15-29 urteko gazteen artean eta biztanleria osoan (%)Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (*Euskadi eta drogak bilduma*)

Alkoholaren, tabakoaren eta cannabisaren kontsumoa handiagoa da mutilen artean nesken artean baino

Arriskuko sexu-harremanak izan dituzten gazteen ehunekoa jaitsi egin da

Gizon gazteen ehunekoak emakumeenak baino handiagoak dira arriskuko jokabide guztietan, arriskuko sexu-harremanak barne

HIESagatiko infekzio berrien kasu gehiago daude gizon gazteen artean emakume gazteen artean baino


5.7. 15-29 urteko gazteen % 12,2k arriskuko sexu-harremanen bat izan dute azken urtean

2016an, 15-29 urteko nesken % 10,8k adierazi zuten aurreko urtean arriskuko sexu-harremanen bat izan zutela, nahi gabe haurdun geratzeko edo sexu-transmisiozko gaixotasunen bat harrapatzeko arriskuarekin. Adin bereko mutilen artean, ehuneko hori zertxobait handiagoa da: % 13,7.

Datu horien bilakaerari erreparatuta, ikusten da inkestaren aurreko urtean sexu-harreman arriskutsuren bat izan duten gazteen ehunekoak behera egin duela: % 18,4 zen 2012an, eta % 12,2, berriz, 2016an. Jaitsiera hori antzekoa izan da emakume eta gizon gazteen artean.

5.7 grafikoa

Galdeketa aurreko urtean arriskuko sexu-harremanen bat izan duten Euskadiko gazteen ehunekoaren bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak bilduma)

5.8. Aurreko urteetan bezala, 15-29 urteko pertsonen taldean, HIESagatiko infekzio berrien tasa 1/10.000 mugatik gorakoa da oraindik

2015ean, 15-29 urteko pertsonen taldean, HIESagatiko infekzio berrien kopurua 34 kasu da. Kopuru hori urte horretako infekzio berri guztien % 22,6 da.


HIESagatiko infekzio berrien tasa kalkulatu gero, ikusten da adin-tarte horretan tasa hori 1,2/10.000 dela. 2006. urtetik, adierazle hori 1/10.000tik gora dago.

HIESagatiko infekzio berrien tasa handiagoa da gizon gazteen artean (1,9/10.000) emakume gazteen artean baino (0,5/10.000). Tasa horrek gora egiten du adinak gora egin ahala: 15-19 urtekoen taldean, 0,1/10.000; 20-24 urtekoen taldean, 1,4/10.000; eta 25-29 urtekoen taldean, 2,0/10.000.

2015ean, aurreko urtetan bezala, HIESagatiko infekzio berrien tasa handiagoa da 30 urtetik beherako gazteen artean biztanleria osoan baino (0,7/10.000), baina aipatu behar da infekzio berrien kopuru handiena 30-39 adin-tartean gertatzen dela. Izan ere, HIESaren batez besteko detekzio-adina 38 urte da.

5.8 grafikoa

HIESagatiko infekzio berrien kopuruaren bilakaera Euskadiko gazteen artean, sexuaren arabera (10.000ko tasa)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (HIESaren Prebentzio eta Kontrolerako plana)


5.9. Haurduntza adoleszenteen tasak behera egin du

Haurduntza adoleszenteen tasak 15-17 urteko emakumeen artean urtebetean jaio diren haurren kopurua eta borondatez eten diren haurdunaldien kopurua biltzen ditu, adin-tarte bereko 1.000 emakumeko. 2014an, tasa hori 7,6/1.000 izan zen. Tasa hori ere jaitsi egin da 2012ko tasarekiko. Urte hartan, 9,7/1.000 zen.

2014an, haurduntza adoleszentearen tasa askoz handiagoa izan zen neska atzerritarren artean (34,6/1.000), espainiar nazionalitateko nesken artean baino (5,3/1.000).

5.9 grafikoa

Haurduntza adoleszentearen tasaren bilakaera Euskadiko 15-17 urteko nesken artean, nazionalitatearen arabera (1.000ko tasa)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailaren (Haurdunaldiaren borondatezko etenduren erregistroa) eta EUSTATen (Biztanleen udal-estatistika) datuak abiapuntu hartuta)

Haurduntza adoleszen-tearen tasa zazpi bider altuagoa da neska gazte atzerritarren artean espainiar nazionalitatea dutenen artean baino

2013tik, bere buruaz beste egiteagatiko heriotza-tasa handiagoa da zirkulazio-istripuengatiko heriotza-tasa baino

Bere buruaz beste egiteagatiko heriotza-tasa eta zirkulazio-istripuengatiko heriotza-tasa handiagoak dira gizon gazteen artean emakume gazteen artean baino

5.10. Azken hamarkadan, nabarmen jaitsi da zirkulazio-istripuengatiko heriotza-kopurua


15-29 urteko Euskadiko gazteen heriotza-tasa (edozein kausagatik) 18 heriotza/100.000 gazte izan zen 2014an (urte horretakoak dira azken datuak).

15-29 urteko taldean, zirkulazio-istripuengatiko heriotza-tasa 2,2/100.000 izan zen 2014an. Hamar urteko aldian, tasa horrek behera egin du, nabarmen: 2003an, % 17,9 zen, eta 2014an, berriz, % 2,2. Jaitsiera hori orokorra izan da, eta Euskadiko biztanleria osoan ere hauteman da (2014an, tasa hori gazteen tasaren antzekoa zen: 2,3/100.000). Espainiako gazte guztien taldean, zirkulazio-istripuengatiko heriotza-tasak ere behera egin du, baina Euskadiko tasaren gainetik dago oraindik (Espainiako 15-29 urteko gazteen taldekoa 3,6/100.000 da).

Bere buruaz beste egiteagatiko edo nork bere buruari egindako lesioengatiko heriotza-tasa handiagoa da zirkulazio-istripuengatiko heriotza-tasa baino: Euskadin, 2014an, 15-29 urteko gazteen taldean, 5,8/100.000 izan zela jotzen da. Bere buruaz beste egiteagatiko heriotza-tasa txikiagoa da gazteen artean Euskadiko biztanleria osoan baino (8,5/100.000), baina Espainiako gazteena baino handiagoa da (2014an, 4,4/100.000). Bere buruaz beste egiteagatiko heriotza-tasa egonkorragoa da zirkulazio-istripuengatiko heriotza-tasa baino.

5.10 grafikoa

Bere buruaz beste egiteagatiko heriotza-tasaren eta zirkulazio-istripuengatiko heriotza-tasaren bilakaera 15-29ko urteko Euskadiko gazteen artean (100.000ko tasa)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila (Hilkortasunaren Erregistroa)

Bi kasuetan, tasak handiagoak dira gizon gazteen artean emakume gazteen artean baino: zirkulazio-istripuengatiko heriotza-tasari dagokionez, 2014an, gizon gazteena 4,2/100.000 izan zen, eta emakumeena 0/100.000; urte berean, bere buruaz beste egiteagatiko heriotza-tasa 7,8/100.000 izan zen gizon gazteen artean, eta 3,7/100.000, berriz, emakume gazteen artean.

6

6. GIZARTE EKINTZA

6.1. 16-29 urteko gazteen ia erdiak hilean 300 euro baino gutxiago dituzte


16-29 urteko gazteen % 47,7k hilean 300 euro baino gutxiago dituzte. % 11,0k hilean 301-600 euro dituzte; % 10,2k, 601-900 euro; % 9,8k, 901-1.200 euro; eta % 12,8k, berriz, 1.200 euro baino gehiago. Gainerakoek (% 8,6) ez dute erantzun hilean, batez beste, zenbat diru izaten duten galdetu zaienean.

Datu horien arabera, 2015ean, 16-29 urteko gazteen herenak soilik dituzte 600 eurotik gora hilean (% 32,8).

Datu horien bilakaerak erakusten du krisi ekonomikoa hastean gazteen diru-sarrerak behera egin zutela. Behea 2013an jo zuten, eta 2015ean zertxobait berreskuratu ziren, 2013-2015 aldian enpleguak hobera egitearekin bat. Izan daitezkeen diru-sarrerak ez daude erabat lana izatearen mende, baina faktore horrek garrantzi handia du. Hain zuzen, lana dutenen % 70,8k 600 eurotik gora dituzte hilean.

6.1 grafikoa

Enplegu-tasaren eta 16-29 urtekoen taldean hilean 600 euro baino gehiago dituztenen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Emantzipazioa bilduma*) eta EUSTAT (*Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA*)

6.2. Gazte gehienek familiarekiko mendekotasun ekonomikoa dute

2015ean, 16-29 urteko Euskadiko gazteen % 55,7 familiaren diru-sarreretatik bizi dira (hau da, gurasoen, anaia-arreben eta abarren diru-sarreretatik) eta % 15,5ek beren diru-sarrerak familiaren diru-sarrerekin osatu behar dituzte.

Gazteen % 13,8 soilik bizi dira beren diru-sarreretatik. % 8 beren diru-sarreretatik eta bikotekidearen diru-sarreretatik bizi dira, erdi bana. Eta % 5ek adierazten dute bikotekidearen diru-sarreraren mende daudela, erabat, bizitzeko. Egoera hori hedatuago dago emakumeen artean (% 7,8) gizonen artean baino (% 2,3), eta desparekotasunezko eta menpekotasun ekonomikoko egoerak sortzen dira, emakume gazteen kalterako. Guztira, 30 urtetik beherako gazteen laurdenak baino zertxobait gehiagok (% 26,8) diote beren diru-sarreretatik eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi direla; hau da, ez daudela familiaren mende (gurasoak...).

16-29 urteko gazteen herenak soilik dituzte hilean 600 euro baino gehiago


16-29 urtekoen taldean, % 26,8 soilik bizi dira beren eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik

Lana okupazio nagusitzat dutenen artean, soilik erdia bizi da beren eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik

Pobrezia-tasa handiagoa da gazteen artean Euskadiko biztanleria osoan baino

6.2 grafikoa

Jatorriko familiarekiko mendekotasun ekonomikoa ez duten 16-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera, zer diru-sarreretatik bizi diren bereizita (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia

Hori ez da harritzekoa, gazteen enplegu-tasak eta diru-sarrerak kontuan hartzen baditugu. Baina bereziki kezkarria da gazte landunen erdiak soilik (% 50,2) diotela beren diru-sarreretatik eta/edo bikotekidearen diru-sarreretatik bizi direla, batik bat edo erabat. Lan egiten duten gainerako gazteek familiaren diru-sarrerekin osatu behar dituzte beren diru-sarrerak (% 30,7) edo familiaren diru-sareren mende bizi dira (% 17,0).

6.3. Pobrezia-egoeran dauden gazteen ehunekoak gora egin du krisi ekonomikoaren ondorioz

2016an, pobrezia errealeko egoeran zeuden 16-29 urteko gazteen ehunekoa (adin-tarte horretako gazte guztiekiko) % 8,1 zen. Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Pobreziaren eta gizarte-ezberdintasunen inkestako metodologiaren arabera, pobrezia erreala deritzo elikadurarako, etxebizitzarako, jantzietarako eta oinetakoetarako gastuei aurre egiteko behar adina baliabide ekonomikorik (diru-sarrerak eta ondarea) ez izatearen egoerari.

16-29 urteko gazteen taldean, pobrezia errealeko egoeran dauden ehunekoak gora egin du 2008tik aurrera. Bilakaera ez da berdina izan hiru lurralde historikoetan. 2016an, Arabak zuen pobrezia-tasarik handiena (% 17,8), askoz handiagoa Gipuzkoakoa (% 6,8) eta Bizkaikoa baino (% 6,3).


Oro har, gazteen pobrezia errealearen tasa handiagoa da Euskadiko biztanleria osoarena baino (2016an, % 5,7). 2008tik aurrera, gazteen pobrezia-tasak biztanleria osoarenak baino handiagoak izaten hasi ziren, ordura arte batezbestekoa baino txikiagoak izan baitziren.

Bestalde, pobrezia-tasa hori handiagoa da emakume gazteen artean (% 8,8) gizon gazteen artean baino (% 7,5).

DBEko laguntza jasotzen duten 16-29 urteko gazteak laguntza horiek jasotzen dituzten pertsona guztien % 8,5 baino ez dira

6.3 grafikoa

Pobrezia errealeko egoeran dauden gazteen ehunekoaren bilakaera 16-29 urteko gazteen artean, lurralde historikoaren arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (*Pobreziaren eta gizarte-ezberdintasunen inkesta*)

6.4. 16-29 urteko gazteen % 2,0 DBEren onuradunak dira


2017ko urtarrilean Diru-sarrerak Bermatzeko Errentako (DBE) laguntzetan aktibo dauden espedienteerik erreparatu gero, ikusten da 5.375 espediente dagozkiela 16-29 urtekoen adin-taldeko pertsoneri; hau da, Euskadiko biztanleria osoaren taldean aktibo dauden espediente guztien % 8,5.

Datu horien arabera, ikusten da 16-29 urteko gazteen % 2,0 prestazio horren onuradun direla (ehuneko hori DBE jasotzen dutenen tasa dela esan daiteke). Emakumeen pobrezia-tasa handiagoarekin lotuta, handiagoa da DBE jasotzen duten emakume gazteen ehunekoa (% 2,4) laguntza hori duten gizon gazteena baino (% 1,7).

Hala ere, laguntza hori ez da pobrezia-kasu guztietara heltzen; izan ere, adin-tarte horretan pobrezia errealeko egoeran dauden gazteen ehunekoa (2016an, % 8,1) DBEko laguntza jasotzen duten gazteen ehunekoa baino dezente handiagoa da.

6.4 grafikoa

Pobrezia errealeko tasaren eta DBEko laguntza jasotzen dutenen tasaren arteko alderaketa 16-29 urteko pertsonen taldean, sexuaren arabera (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (*Pobreziaren eta gizarte-ezberdintasunen inkesta*) eta Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko Lanbideren estatistikak

16-29 urteko
pertsonek
% 5,9 ez dira
ikasten ari, ezta
lanean edo lan-
bila ere

Argi dago gizarte-laguntzak ez direla nahikoak gazteen premiak betetzeko, eta familia dela gazte askok dituzten zailtasunak arintzen dituen koltxoi ekonomikoa.


6.5. Euskadin, gazteen % 15,8k ez dute lanik egiten eta ez dira ikasten ari

2014an, 16-29 urteko taldeko pertsonen % 15,8k ez zuten lanik egiten eta ez ziren ikasten ari. Ez-ez belaunaldikoak direla esan ohi da (NiNi), baina kontuan izan behar da pertsona horietatik gehienak lana bilatzen ari direla (% 62,7 kolektibo horretan).

NiNi ez-aktiboei erreparatzeko badiegu —hau da, ikasten, lanean edo lan bila ari ez direnak—, ikusten da Euskadiko 16-29 urteko gazte guztien % 5,9 direla. Ehuneko hori zertxobait txikiagoa da Europar Batasuneko batezbestekoa baino (15-29 urteko gazteen talde osoaren % 7,8). Nolanahi ere, aipatu behar da kategoria horretan sartzen direla lan egin ezin duten pertsona desgaituak ere, bai eta (ordaindu gabeko) etxeko lanetan edo zainketa-lanetan jarduten duten pertsonak ere.

6.5 grafikoa

15-29 urteko NiNi ez-aktiboen ehunekoaren alderaketa Europar Batasunean 2014an (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia, EUSTATen datuak (*Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta, BJA*) eta EUROSTATen datuak (Gazteei buruzko estatistikak) oinarri hartuta

Genero-indarkeriaren biktima diren emakume gazteek salaketa gehiago jartzen dituzte 29 urtetik gorakoek baino

Emakume gazteek gizon gazteek baino larritasun-maila handiagoa ematen diete indarkeria-forma guztiei

6.6. 15-29 urteko 1.000 emakumetatik 7k genero-indarkeriagatik salaketaren bat jarri dute


Euskadin, 2015ean, emakumeen aurkako indarkeria-tasa globala 7,3 izan zen 15-29 urteko 1.000 emakumeko. Kasu gehienetan, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeria da (1.000 emakume gaztetatik 5,4k jarri dute salaketaren bat arrazoi horrengatik; beste 1,2k familiaren barruko esparruan eragindako indarkeria jasan dute, eta gainerako 0,8a, sexu-askatasunaren aurkako delituei dagokie).

2015ean, emakumeen aurkako indarkeria-tasa handiagoa da 15-29 urteko emakumeen kolektiboan (7,3/1.000) 30 urteko eta hortik gorako adineko emakumeen artean baino (3,5/1.000).

Emakume gazteen tasak handiagoak dira 29 urtetik gorako emakumeenak baino, segida osoan. Horrek ez du nahitaez esan nahi emakume gazteek indarkeria-maila handiagoa jasaten dutela, baizik eta emakume gazteek neurri handiagoan salatzen dituztela egoera horiek, tasa horren bidez arrazoi horrengatik salaketa jarri duten emakumeak zenbatzen baitira.

6.6 grafikoa

Emakumeen aurkako indarkeria-tasaren bilakaera 15-29 urteko emakumeen eta 30 urteko eta adin horretatik gorako emakumeen artean (milako tasa)



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Segurtasun Saila

6.7. Bikote barruan izan daitezkeen indarkeria-forma guztien larritasunarekiko kontzientziarazioa areagotu da

Kontuan hartuta emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako salaketa gehienak bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako indarkeriarekin lotuta daudela, egokia da aztertzea zer-nolako larritasun-maila ematen dioten gazteek bikotearen barruan gerta izan daitezkeen indarkeria-formei (indarkeria fisikoaz gain).


Adierazitako indarkeriazko edo tratu txarreko formetatik, Euskadiko gazteek uste dute gogoz kontrako sexu-harremanak izatera behartzea dela larriena. 2016an, 15-29 urteko emakumeen % 98,7k eta adin-tarte horretako gizonen % 95,6k uste zuten indarkeria-forma hori tratu txarreko oso modu larria zela. Forma horren atzetik, larritasun-mailaren arabera, indarkeria-forma hauek daude: etxetik irtetea debekatzea, mehatxuak egitea, mespretxatzea, erabakiak hartzen ez uztea eta iraintzea.

Kasu guztietan, gehiago dira tratu txar horiek oso larritzat jotzen dituzten emakumeak iritzi berdina duten gizonak baino.

Tratu txarren forma horiek guztiak oso larritzat jotzen dituzten gizon eta emakume gazteen ehunekoek gora egin dute 2012tik 2016ra.

6.7 grafikoa

Adierazitako tratu txarren forma horietako bakoitza oso larritzat jotzen duten gizon eta emakume gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak bilduma)

Gero eta gehiago dira kalean gauez bakarrik ibiltzeko beldur diren emakumeak

6.8. 15-29 urteko hiru emakumetatik bati beldurra ematen dio gauean herrian edo auzoan bakarrik ibiltzeak

Orain artean, pentsatu izan da hiri-segurtasunaren pertzepzioa homogeneous zela biztanleria osoan. Hala ere, azken hamarkadetan argi eta garbi ikusi da oso desberdinak direla gizonen eta emakumeen bizipenak hiri-indarkeriazko modu ugarien aurrean (sexu-erasoak, ahozko erasoak, lapurretak, beldurrarazteak eta abar).

Emakume gazteen % 34,2ri beldurra ematen die bizi diren herrian edo auzoan gauez bakarrik ibiltzeak. 15-29 urteko gizonen artean, ehuneko hori % 3,9 da. Emakume bat gauez kalean lasai ezin ibiltzea emakumeen aurkako beste indarkeria-forma bat da.


Emakume gazteek aurreko urteetan baino beldur handiagoa diote orain gauez bakarrik ibiltzeari, eta, aldi berean, areagotu egin da beldurraren pertzepzioan emakumeen eta gizonen artean dagoen aldea.

Aztertutako urte guztietan, ikusi da 15-19 urteko neskek adierazten dutela beldur handiena: 2016an, adin horretako nesken % 43,5ek zioten beldurra ematen zela gauez kalean bakarrik ibiltzeak.

Aipatu behar da, edonola ere, hezkuntza- eta sozializazio-prozesuan emakumeei gauez bakarrik ibiltzeko beldur izan behar dutela irakasten zaiela, eta tentuz ibili behar dutela, gizonen baino gehiago, kanpo-erasorik ez izateko.

6.8 grafikoa

Gauetz beren herrian edo auzoan ibiltzeaz beldur diren 15-29 urteko emakume eta gizon gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak bilduma*)

6.9. Gizonen eta emakumeen arteko desparekotasunak etxeko lanen banaketan edo lana lortzeko aukeretan era ageri dira

2013an, 16-29 urteko emakumeek esaten zuten gizonek baino 16 minutu gehiago ematen zituztela etxeko lanak egiten (etxeko lanekin lotutako generoen arteko tartea esaten zaio horri). Alde hori adin horretako pertsona gazte guztiei dagokie, haien bizikidetzaren egoera dena delakoa izanda ere. Bikotekidearekin bizi direnei dagokienez, etxeko lan gehienak nork egiten dituen galdetuz gero, alde nabarmenak daude erantzunetan, sexuaren arabera.

2016an, bikotekidearekin bizi diren 30 urtetik beherako emakumeen % 22,2k zioten haiek egiten dituztela etxeko lan gehienak edo guztiak; % 59,4k zioten bikotekidearekin erdi bana egiten dituztela; eta % 3,2k, berriz, bikotekideak egiten dituela lan horietako gehienak. Bikotekidearekin bizi diren 30 urtetik beherako gizonen artean, erantzunak nahiko desberdinak dira: % 5,2k soilik dio haiek egiten dituztela etxeko lan gehienak; % 67,3k diote lanak erdi bana egiten dituztela; eta % 17,2k aitortzen dute bikotekideak egiten dituela lan horietako gehienak. Lan horiek bikotekidetik kanpoko pertsona batek egiten dituela esaten dutenen ehunekoa antzekoa da talde batean eta bestean. Beraz, ikusten da emakumeek diotela gizonek baino neurri handiagoan egiten dituztela lan horiek.


Azken urteotan, etxeko lanen baterako erantzukizuna eta berdintasunezko banaketa gora egiten ari dira, baina oraindik ere, emakumeek gizonen baino neurri handiagoan egiten dituzte etxeko lanak.

Langileak hautatzeko prozesu batean lana lortzeko diskriminazio-sentsazioari dagokionez, 2016an, nesken % 27,6k uste dute, prestakuntza eta esperientzia berdineko gizon baten eta emakume baten artean, mutilak izango lituzkeela aukera gehiago lana lortzeko, mutila izateagatik. Mutilen % 21,2k iritzi berdina dute. Nesken % 8,3k eta mutilen % 9,7k soilik uste dute emakumeak aukera gehiago izango lituzkeela, emakume izateagatik. Hala ere, gazte gehienek uste dute izangaien sexuak ez lukeela eraginik izango. Ideia hori hedatuago dago mutilen artean (% 63,0) nesken artean baino (% 58,4).

Etxeko lanei dagokienez, emakume gazteek lan-karga handiagoa dute gizon gazteek baino

6.9 grafikoa


Bikotekidearekin bizi diren 15-29 urteko pertsona gazteen arteko etxeko lanen banaketaren bilakaera, gizonak eta emakumeek emandako erantzunen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak bilduma*)

6.10 grafikoa

Lana lortzeko prozesuetan diskriminatua izatearen sententzioaren bilakaera 15-29 urteko pertsonen taldean, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak bilduma*)

Emakumeen artean, 2008ko datuen aldean, areagotu egin da gizonen lanpostu bat eskuratzeko aukera gehiago dituztelako sententzioa, emakumeek prestakuntza eta esperientzia berdina izanda ere.

Emakume zein gizon gazteek uste dute gizonen emakumeek baino aukera gehiago dituztela lanpostu bat lortzeko, prestakuntza- eta esperientzia-baldintza berdinak izanda

2016an, hamar gaztetatik bederatzi sexu berekoen arteko ezkontzak eta sexu-aldaketak onartzearen alde zeuden

Behera egiten ari da Euskadin atzerritar gehiegi daudelako iritzia


6.10. Sexu berekoen arteko ezkontzak eta sexu-aldaketak onartzearen alde daudenek gora egin dute

2008-2016 aldian, gora egin du sexu berekoen arteko ezkontzen alde dauden ehunekoa, bai eta sexu-aldaketa legeztatzearen alde dauden ehunekoa ere.

Bilakaera hori nabarmenagoa izan da gizon gazteen artean emakume gazteen artean baino, baina, hala ere, handiagoak dira neurri horien alde dauden emakumeen ehunekoak.

6.11 grafikoa

Sexu berekoen arteko ezkontzak eta sexu-aldaketak onartzearen alde dauden gizon eta emakume gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak bilduma)

6.11. Immigranteak sartzearen aurkako gaitzespenak behera egin du

2004tik 2012ra, Euskadin atzerritar gehiegi zeudelako iritziak indar gero eta handiagoa hartu zuen gazteen artean, bai eta Euskadiko gainerako biztanleen artean ere. Hala ere, 2016an, gutxiago dira iritzi horrekin ados daudenak. Hori bat dator gure autonomia-erkidegoan atzerritar gutxiago egotearekin (2012an, biztanleria osoaren % 7,3 ziren, eta 2016an, berriz, % 6,5). 2016an, atzerritar gehiegi daudela uste dutenen ehunekoa txikiagoa da gazteen artean (% 29,4) 18 urtetik gorakoen artean baino (% 36,0, Lehendakariatzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak plazaratutako 60. Euskal Soziometroa azterketako datuen arabera).


Bestalde, 2016an, 15-29 urteko gazteen % 39,2k uste dute atzerriko immigrantei buruzko neurri egokiena haien sarrera ahalik eta gehien erraztea izango litzatekeela; gehiagok uste dute (% 45,8) lan-kontratua dutenei soilik utzi beharko litzaiekeela sartzen; eta gazteen % 5,2k uste dute immigrantei sarrera debekatzea izango litzatekeela immigrazio-politikarik egokiena. Gainerako % 9,8k ez daki edo ez du iritzirik eman.

Atzerriko immigrantei sarrera debekatzearen aldekoen ehunekoak behera egin du: % 9,8 ziren 2012an, eta % 5,2, berriz, 2016an. Immigranteen sarreraren aurkako iritzia beherakada bat dator Euskadin atzerritar gehiegi bizi direla uste duten gazteen ehunekoaren beherakadarekin.

20 urtetik
beherako
gazteak
toleranteagoak
dira
immigrazioarekin

6.12 grafikoa

Euskadin atzerritar gehiegi bizi direla uste duten eta immigranteen sarrera debekatuko luketen 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak bilduma*)

Zenbat eta gazteagoak izan, orduan eta txikiagoa da atzerritar gehiegi daudela uste dutenen proportzioa, bai eta haien sarrera debekatu beharko litzatekeela uste dutenen ehuneko ere (% 3,7, hain zuzen, 20 urtetik beherakoen artean).

7

7. AISIA ETA KULTURA

15-29 urteko gazteen aisia-jarduera nagusia musika entzutea da


7.1. 15-29 urteko pertsonen aisia-jarduera nagusiak teknologia berrieekin lotuta daude

15-29 urteko gazteen % 81,9k diote musika egunero edo ia egunero entzuten dutela. Aisialdi-jarduera hori da gehienek aipatzen dutena. Hain zuzen ere, beste jarduera batzuekin batera egin daiteke musika entzun; hau da, ez da baztertzaila, eta kalean egotean (hori da gehien aipatzen den bigarren jarduera), kirola egitean, bideoak ikustean eta abar egitean egin daiteke.

Azpimarratu behar da teknologia berrieekin lotutako jarduerak direla ohikoenak, musika entzutea gailu mugikorretan (% 81,9), filmak eta sailak ikustea (% 52,5), YouTubeko, Vimeoko eta beste plataforma batzuetako bideoak ikustea (% 43,1), eta bideo-jokoetan jokatzeko (% 14,8), kalean egotearekin (% 56,8) eta kirola egitearekin batera (% 23,6).

7.1 grafikoa

15-29 urteko Euskadiko gazteek egunero edo ia egunero egiten dituzten aisia-jarduerak (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2016, datu-aurrerapena)

Gizonen eta emakumeen arteko alde handienak teknologia berrieekin lotuta Internet bidez egiten diren aisialdi-jardueretan daude: YouTuben, Vimeon eta antzeko plataformetan bideoak ikustea (% 47,1 mutilen artean, eta % 38,9 nesken artean), bideokontsolekin jokatzeko, ordenagailuko jokoekin aritzea (% 18,2 mutilen artean, eta % 11,3 nesken artean), Internetera bideoak igotzea (% 2,6 mutilen artean, eta % 1,8 nesken artean), eta blogetan idaztea (% 2,4 mutilen artean, eta % 1,1 nesken artean).

Mutil gazteek neskek baino gehiago aipatzen dituzte beste jarduera batzuk; esaterako, kirola egitea, lonjetan egotea eta kalean egotea.

Lonjetan parte hartzea 15-19 urteko mutilen bereizgarria da


Euskadiko gazteek gehien erabiltzen dituzten sare sozialak WhatsApp, Facebook, Instagram eta YouTube dira

Eta lonjara egunero edo ia egunero joaten direla dioten ehunekoa % 6,7 baino ez bada, lonjaren bateko kideak diren ehunekoa % 20,2 da, bost urte lehenagoko ehunekoaren oso antzekoa, % 19,5 izan baitzen 2011n.

Gizonak eta 15-19 urteko pertsonak dira lonjetan gehien egoten direnak.

7.2 grafikoa

15-29 urteko gazteen parte-hartzea lonjetan, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Gazteen lonjak eta lokalak EAEn eta Euskadiko gazteak 2016, datu-aurrerapena)

7.2. Gazteen % 99k sare sozialen bat erabiltzen dute, WhatsApp, Facebook, Instagram eta YouTube batik bat

Definizio horren arabera, 15-29 urteko Euskadiko gazteen % 99k sare sozialen bat erabiltzen dute. Euskadin, gazte bakoitzak 4 sare sozial erabiltzen ditu, batez beste (zehazki, 3,8). Egutero edo ia egutero erabiltzen dituztela diotenak soilik kontuan hartuta, eguteroko erabiltzaileak % 97,5 direla ikus dezakegu (erabiltzaile guztiak baino zertxobait gutxiago), eta erabiltzaile horiek, batez beste, 3 saretara konektatzen direla egutero (2,9).

Sare sozial horien eguteroko erabilerari dagokionez, neskek mutilek baino gehiago erabiltzen dituzte egutero Facebook, Instagram eta Snapchat; mutilek, aldiz, neskek baino gehiago erabiltzen dute egutero Youtube.

Spotify, Pinterest eta Wattpad-era egutero konektatzeari dagokionez, nesken ehunekoa, berri ere, mutilena baino pixka bat handiagoa da; aitzitik, mutilek baino proportzio txikiagoan konektatzen dira egutero Twitter eta Telegrama.

Adinari erreparatzen badiogu, gazteen kolektiboa da (15-19 urte) honako sare sozial hauek gehien kontsumitzen dituenak: Instagram (20 urtetik azpikoak egutero gehien konektatzen diren sare soziala da, WhatsAppen atzetik), Youtube, Snapchat, Twitter, Spotify, Ask.fm eta Wattpad.

20-24 urtekoen taldean, WhatsAppen atzetik, Facebook dago (20 urtetik azpiko taldekoekin alderatuta, bikoiztu egiten dira eguneroko erabilerako ehunekoak 20-24 urtekoen taldean), eta haien atzetik, Instagram (hogei puntu gutxiago), YouTube eta Twitter daude. Snapchat zazpigarren dago, Spotifyren atzetik, eta hogeita hamar puntu galdu ditu, eguneroko erabiltzaileei dagokienez.

Azkenik, 25-29 urtekoen taldean, Facebook da WhatsAppen atzetik gehien erabiltzen den sare soziala (WhatsApp erabat nagusi da adin-talde guztietan), eta bi horien atzetik eta nahiko urrun, YouTube eta Instagram daude (azken horrek beste hogei puntu beherago). Atzetik, Twitter eta Spotify daude. 25-29 urteko taldekoek apenas erabiltzen dute Snapchat, eta LinkedIn baino beherago dago rankinean. LinkedIn, hain zuzen, 25 urteko adinetik aurrera erabiltzen hasten dira.

7.3 grafikoa

15-29 urteko gazteek erabiltzen dituzten sare sozial birtualak, adin-taldean arabera

	15-19 urte	20-24 urte	25-29 urte
1.	 % 95,7	 % 96,5	 % 96,2
2.	 % 62,5	 % 64,8	 % 65,7
3.	 % 45,9	 % 42,3	 % 33,4
4.	 % 44,9	 % 41,9	 % 20,0
5.	 % 34,9	 % 24,9	 % 15,0
6.	 % 27,0	 % 12,4	 % 11,3
7.	 % 18,5	 % 10,9	 % 3,6

Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2016, datu-aurrerapena)

7.3. laz, gazteen % 37,1ek baliatu zituen sare sozialak eztabaidak edo salaketak sustatzeko edo zabaltzeko

2016an, Euskadiko gazteen herenak baino zertxobait gehiagok (% 37,1) sare sozialak baliatu zituzten eztabaidaren bat sustatzeko, egoeraren bat salatzeko, gai baten alde agertzeko edo horri buruzko iritzia emateko.

Adinean gora egin ahala, ziberaktibismoak ere gora egiten du, zeina honela ulertu behar baita: sare sozialak erabiltzea eztabaida edo salaketak sustatzeko eta zerbait babesteko, birbidaltzeko edo horri buruzko iritzia emateko. Laz, honako hauek jardun zuten ziberaktibismoan: 15-19 urteko gazteen % 33,2k, 20-24 urteko taldekoen % 37,3k, eta 25-29 urteko pertsonen % 40k.

Adinarekin lotuta, hau ikusten da: goi-mailako ikasketak dituzten gazteek ikasketa-maila hori ez dutenak baino eztabaida edo salaketa gehiago sustatu edo bultzatu zituzten Interneten. Eta goi-mailako ikasketak dituztenen artean, unibertsitate-tituludunak izan ziren ziberaktibismoko jardueretan gehien parte hartu zutenak (% 49,3).

Alderdi horri dagokionez, ez dago alderik mutilen eta nesken artean; aldiz, politikarekiko interesa erabakigarria da kasu honetan. Politikarekiko interes handia edo nahiko handia dutela dioten artean, gehienek (% 57,2) diote eztabaidak sustatu edo bultzatu dituztela sare sozialetan. Interes gutxi edo batere interesik ez dutenen artean, berriz, ehuneko hori % 12,0ra jaisten da.

Teknologia berriek aukera ematen dute gazteek aktibismo forma berri batzuk egiteko

Euskadiko 15-29 urteko bost pertsonatetik batek dio WhatsAppeko talderen batetik bota dutela, bere gogoaren kontra

Argazkigintza da gazteen artean praktikatzeko den arte-jardueren artean amateur ohikoena

7.4. Sare sozialetako jazarpen-modurik ohikoena (Cyberbullying) WhatsAppeko taldeetatik botatzea da

Hala ere, sare sozialak erabiltzeak berekin dakar gaitzespen- edo jazarpen-jokaera batzuk jasateko arriskua izatea; besteak beste, WhatsAppeko taldeetatik botatzea, sare sozialen batean identitatea faltsifikatzea edo irudi konprometituak edo iraingarriak zabaltzea. Sare sozialetako jazarpen-modurik ohikoena WhatsAppeko taldeetatik botatzea da

Bost gaztetatik batek (% 19,6) adierazi du WhatsAppeko talderen batetik bota dutela (% 22,8 gizonen artean eta % 16,3 emakumeen artean). % 3,8k dio askotan gertatu zaiola hori, eta gainerako % 15,8ak dio noizbait bakarrik gertatu zaiola.


Gazteen % 8,4k dio identitatea faltsifikatu diotela inoiz sare sozialen batean: % 0,6ri askotan gertatu zaio hori, eta gainerako % 7,8ari, aldiz, kasuren batean bakarrik.

Eta gazteen % 6,6k dio beste pertsona batzuek bideo edo argazki konprometitu edo iraingarriren bat igo dutela Internetera edo horiek sare sozialetan barrena zabaltzea, beraiei baimenik gabe. Berrito ere, % 0,6k diote askotan gertatu zaiela hori, eta gainerako % 6,0ak diote noizbait bakarrik gertatu zaiela..

7.5. Teknologia berriek arte-jardueretan parte-hartze handiagoa izatea eragin dute, ikus-entzunezkoetan batik bat

2016ean, Euskadiko gazteen arte-jardueren artean amateur ohikoena argazkigintza da. Gazteen % 28,2k diote azken 12 hilabeteetan jardueren hori egin dutela; argazkigintzaren atzetik, idaztea (% 21,3), pintatzea edo margotzea (% 17,8), bideoak egitea (% 14,7), musika-tresnak jotzea (% 14,7), eta dantza edo balleta (% 11,6) daude.

7.4 grafikoa
15-29 urteko gazteen parte-hartzea arte-jardueretan (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2016, datu-aurrerapena)


2012-2016 aldian, asko handitu da inkestaren aurreko 12 hilabeteetan arte- edo kultura-jardueraren bat egin duten gazteen ehunekoa. 2008an, ehuneko hori % 39,8 zen; 2012an, % 42,9; eta 2016an, berriz, % 55,1era iritsi zen.

Arte-jardueren gorakada 15-19 urteko gazteen artean izan da batik bat. Hain zuzen ere, 2008tik 2016ra, % 35,8tik % 57,8ra arte igo da parte-hartzearen ehunekoa.

4 urteko aldian,
13 puntu
handitu da 15-
29 urteko
gazteen parte-
hartzea arte-
jardueretan

Zinema da
pertsona
gazteak sarrien
joaten diren
kultura-
ekitaldia

7.5 grafikoa
Arte-jardueretako parte-hartzearen bilakaera, adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak bilduma*) eta Kulturaren Euskal Behatokia (*Euskal Herriko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008*)


Neskek mutilek baino neurri handiagoan egiten dituzte arte-jarduera amateurak. Euskadiko 15-29 urteko neska gazteen % 59,4k diote arte- edo kultura-jardueraren bat egin dutela azken urtean. Mutilen artean, ehuneko hori % 51,0 da.

7.6. Hamar gaztetatik zortzi baino gehiago joan dira kultura- edo kirol-ikuskizunen batera azken hiru hilabeteetan

15-29 urteko gazteen % 79,0 kultura-ekitaldiren batera joan dira azken hiru hilabeteetan. Kirol-ikuskizunak 2016an azertu dira lehen aldiz, eta horiek ere kontuan hartzen baditugu, ehuneko hori % 84,6ra arte igozten da.

Zinemara joaten direnen ehunekoak asko egin du gora 2012-2016 aldian, eta kontzertuetara, museoetara eta antzokietara joaten direnen ehunekoa egonkorra da. Sexuen arteko alde esanguratsu bakarra kirol-ekitaldietara joatearekin lotutakoa da: mutilen % 58,3 joan dira horrelako ekitaldiren batera azken hiru hilabeteetan; nesken artean, berriz, % 34,6 da ehuneko hori.

7.6 grafikoa
Kultura-ekitaldietara bertaratzearen bilakaera 15-29 urteko gazteen artean (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak bilduma*) eta Kulturaren Euskal Behatokia (*Euskal Herriko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008*)

Kirol-jarduera erregularra egitea askoz ohikoagoa da mutilen artean nesken artean baino

Mutilen artean, futbola da kirol nagusia


7.7. Euskadiko gazteen ia erdiak kirolen bat egiten du, modu erregularrean

Euskadiko gazteen % 49,0k kirolen bat egiten dute astean 3 aldiz edo gehiagotan. Ehuneko horrek gorakada handia izan du 2012-2016 aldian, % 40,2tik aipatutako % 49,0 horretara arte.

Hala ere, gizonen eta emakumeen arteko tartea dago oraindik, emakumeen kirol-jarduna gora egiten ari den arren. Dena dela, aipatu behar da gizonen eta emakumeen arteko aldea futbolaren praktikan dagoen aldeagatik dela batik bat; izan ere, mutilen % 29,4k diote futbolearen aritzen direla, baina nesken % 3,1ek soilik jokatzeko dute futbolearen. Futbola azterketatik kanpo uzten badugu, ez dago hainbesteko alderik nesken eta mutilen kirol-praktikan.

7.7 grafikoa

Kirol-praktika erregularraren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean, sexuaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak bilduma)

Beste adierazle batzuetan gertatzen den moduan, prestakuntza-aldiaren amaierak ohitura-aldaketak dakartza berekin, eta horren barruan, kirol-praktika erregularra alde batera uzten da apurka-apurka.

7.8 grafikoa

Kirol-praktika erregularraren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean, adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak bilduma)


Neska gazteek
mutil gazteek
baino gehiago
irakurtzen dute

7.8. 15-29 urteko gazteen erdiak baino gehiagok diote azken hilabeteen libururen bat irakurri dutela aisiagatik

Euskadiko gazteen artean, irakurtzeko ohiturak gora egin du 2008tik 2016ra (hamar puntu): 2008an, gazteen % 44,6k zioten libururen bat irakurri zutela azken hilabeteen aisialdian, eta 2016an, % 54,4k zioten hori. Irakurtzeko ohiturari dagokionez, neska gazteek mutilek baino gehiago irakurtzen dute.

7.9 grafikoa

Irakurtzeko ohituraren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean, sexuaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak bilduma*) eta Kulturaren Euskal Behatokia (*Euskal Herriko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008*)

2008an, adin txikieneko taldeak (15-19 urtekoak) zuen irakurtzeko ohitura gutxien, baina egoera hori goitik behera aldatu da, eta 2016an, adin-talde horietakoak dira gehien irakurtzen dutenak.

Okupazio nagusiaren arabera, ikasleen % 59,0k diote azken hilabeteen aisiagatik libururen bat irakurri dutela. Lanean ari direnen artean, ehuneko hori % 51,7 da, eta langabezia dauden artean, berriz, % 42,4.

7.10 grafikoa

Irakurtzeko ohituraren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean, adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak bilduma*) eta Kulturaren Euskal Behatokia (*Euskal Herriko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008*)


20 urtetik
beherako
pertsonek dira
euskaraz gehien
irakurtzen
dutenak

7.9. Euskaraz irakurtzeko ohitura gero eta txikiagoa da ikasketak amaitu ahala

Euskaraz irakurtzeko ohiturak zertxobait atzera egin du azken urteotan: 2008an, inkestaren aurreko hiru hilabeteetan, 15-29ko urteko gazte euskaldunen % 43,5ek irakurri zuten libururen bat euskaraz; 2016an, ehuneko hori % 41,8ra jaitsi da.

7.11 grafikoa

Euskaraz irakurtzeko ohituraren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean, adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak bilduma*) eta Kulturaren Euskal Behatokia (*Euskal Herriko kultura-ohiturei, -praktikei eta -kontsumoari buruzko inkesta 2007-2008*)

2008an, 25-29 urtekoen taldean, % 44,2k zioten azken 3 hilabeteetan libururen bat euskaraz irakurri zutela, baina ehuneko horrek behera egin du 2016an, % 29,4ra arte. 15-19 urtekoen taldean euskaraz irakurtzen dutenen ehunekoa % 60,1 dela kontuan hartuta, agerikoa dirudi ohitura horrek lotura duela hezkuntzarekin, eta gazteek alde batera uzten dutela apurka-apurka, hezkuntza arautua bukatu ahala.

7.10. Lagunekin euskara erabiltzeak behera egin du 15-29 urteko gazteen artean

Lagunekin euskara erabiltzearen ohiturak beheranzko joera izaten jarraitzen du Euskadiko gazteen artean: lagunekin euskara batik bat edo bi hizkuntzak neurri berean erabiltzen dituzten Euskadiko gazteen ehunekoak 10 puntutik gorako jaitziera metatua izan du 2004ko eta 2016ko ehunekoen artean (% 48,5etik % 38,1era).

Lagunekin euskara erabiltzearen ohituraren beherakada Euskadiko hiru lurraldeetan gertatu da, baina bereziki nabarmena izan da Bizkaian. Hain zuzen ere, lagunekin daudenean euskaraz batik bat edo euskaraz zein gaztelaniaz hitz egiten duten gazte euskaldunen ehunekoa % 43,9tik (2004) % 27,1era (2016) jaitsi da.

Adierazle horretan sartzen dira dena edo ia dena euskaraz egiten dutela diotenak, euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutenak, eta bi hizkuntzak berdin erabiltzen dituztenak. Baina lurralde historiko bakoitzaren balio osoaren banaketan alde handiak eta esanguratsuak daude (ikusi jarraian ageri den grafikoa).

Euskadiko gazteen artean, 2004tik 2016ra behera egin du lagunekin euskara erabiltzen dutenen ehunekoak, 10 puntu

Gipuzkoan gehiago erabiltzen da euskara lagun-giroan Bizkaian eta Araban baino

Gipuzkoan, gazteen % 36,1ek lagunekin ia den-dena euskaraz hitz egiten dute. Ehuneko hori % 6,1 da Bizkaian eta % 4,4 Araban

7.12 grafikoa

Euskararen lagun-giroko erabileraren bilakaera, 15-29 urteko Euskadiko gazteen artean, lurralde historikoaren arabera (%)




Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak bilduma*)

Gipuzkoan, % 36,1ek diote dena edo ia dena euskaraz egiten dutela; % 5,5ek diote euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutela, eta % 16,3k diote bi hizkuntzak berdín erabiltzen dituztela. Bizkaia euskara lagun-giroan gehien erabiltzen den bigarren lurralde historikoa da, eta hor, balioak oso desberdinak dira. % 6,1ek soilik diote dena edo ia dena euskaraz egiten dutela; % 4,2k diote euskara gaztelania baino gehiago erabiltzen dutela, eta bi hizkuntzak berdín erabiltzen dituztela diotenek osatzen dute talde handiena (% 16,8). Azkenik, Araban erabiltzen dute gazteek gutxien euskara lagunekin hitz egiteko: % 4,4k erabiltzen dute euskara soilik; % 4,4k gaztelania baino zertxobait gehiago erabiltzen dute; eta % 12,3k bi hizkuntzak berdín erabiltzen dituzte.

7.13 grafikoa

Euskararen eta gaztelaniaren erabilera lagunekin, 15-29 urteko Euskadiko gazteen artean, lurralde historikoaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Euskadiko gazteak 2016, datu-aurrerapena*)

Euskadiko gazteen ia erdia elkarteren bateko kideak dira

Boluntario-lanak egiten dituzten pertsona gazteen ehunekoak bost puntu egin du gora 4 urteko aldian

7.11. Gora egiten dute asoziazionismo tasak eta boluntario-lanek 15-29 urteko gazteen artean

Parte-hartze sozialeko funtsezko formetako bat elkarreetan parte hartzea da (asoziazionismoa). Kolektibo horiek mota askotako helburuak izan ditzakete: helburu politikoak, aisiakoak, kulturalak eta abar, baina termometro egokia izan daitezke gizarte batean zer mailatako parte-hartzea dagoen neurtzeko.


Grafikoan ikusten da Euskadiko gazteen % 46,2 elkarteren bateko kide zirela 2016an. Elkarre-mota hauek dira nagusi: kirol- edo mendi-elkarreak (% 23,8), aisialdirako elkarreak (% 12,7), kultura- edo arte-elkarreak (% 8,0), gazte-elkarreak edo denbora librekoak (% 7,8), musika-bandak edo -taldeak (% 5,3) eta elkarre politikoak (% 4,1).

Kirol-elkarreetan mutilek neskek baino presentzia handiagoa dutenez, mutil gazteen asoziazionismo-tasa neska gazteena baino handiagoa da (% 51,7 eta % 40,5, hurrenez hurren).

Boluntario-lanak egiteari dagokionez, 2012tik 2016ra bitarteko aldian asko handitu da horrelako lanak egiten dituzten gazteen ehunekoa, % 6,5etik % 11,5era hain zuzen ere. Alderdi honetan, handiagoa da emakumeen presentzia gizonena baino (% 15,1 eta % 8,0, hurrenez hurren).

7.14 grafikoa

15-29 urteko gazteen asoziazionismo-tasaren eta boluntario-lanen tasaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak bilduma)

8

8. KONTSUMOA ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIA

Hamar gaztetatik zortzik erreklamazioa aurkezten dute produktu edo zerbitzuren batekin arazorik izanez gero

8.1. Euskal gazteen % 55,8k era arrazionalen kontsumitzen dute

Kontsumo arrazionalaz ari garenean, «buruarekin kontsumitzeaz» ari gara, hau da, pentsatutako ekintza bat egiteaz, kontsumismoaren aurrean amore egin gabe. Kontsumo arrazionala ez da produktua edo zerbitzua aukeratzekoan amaitzen, ordea, erosketa-prozesu guztiarekin baitauka zerikusia.

15-29 urteko gazteen erdiak baino gehiagok irizpide arrazional batzuk erabiltzen dituzte kontsumitzeko orduan: erosketaren prozesu logikoa dela eta, % 68,8k aurretik pentsatuta izaten dute zer erosi nahi duten; % 53,5ek erabakita izaten dute zenbat gastatu nahi duten; % 55,8k, produktua erosi aurretik, zenbait establezimendutako prezioak alderatzen dituzte; % 47,7k produktuaren bermea egiaztatzen dute; % 67,4k erosketaren faktura edo tiketa egiaztatzen dute; eta % 81,4k erreklamazioa aurkezten dute, arazorik izanez gero.


Gastuaren kudeaketarekin lotutako jokabideak areagotu egin dira 2010etik 2013ra, krisi ekonomikoaren eta diru-baliabide gutxiago izatearen ondorioz, segur aski: zenbat gastatu aurretik pentsatuta izaten dutenen ehunekoa zortzi puntu igo da, eta zenbait establezimendutan prezioak alderatzeko ohituraren ehunekoa, berriz, sei puntu eta erdi handiagoa da 2010eko ehunekoa baino.

Erosketa-prozesuaren arrazionaltasunarekin lotutako jokabide horiek kontuan hartuta, kontsumo arrazionalaren indizea eratzen da. Hori dela eta, jotzen da kontsumo arrazionala egiten dutela aipatutako sei jokabidetatik lau egiten dituztenek. Indize horren arabera, esan daiteke Euskadin, 2013an, gazteen % 55,8ren kontsumoa arrazionala dela.

Kontsumo arrazionalak gora egiten du adinak gora egin ahala. Gizon gazteek emakumeek baino zertxobait gehiago jotzen dute horrela (% 57,6 eta % 54,0, hurrenez hurren), gehienbat gizonek neurri handiagoan pentsatuta dutelako aurretik zer erosi behar duten, zerbitzuen bermea gehiago konprobatzen dutelako, eta arazorik izanez gero, erreklamazioa egiteko joera handiagoa dutelako.

8.1 grafikoa

EAEko 15-29 urteko gazteen kontsumo arrazionalaren indizea, sexuaren eta adin-taldearen arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Kontsumo arduratsuaren ohituren bilakaera EAEko gazteen artean 2010-2013)

Produktu jakin bat kontsumitu aurretik, gazte gutxik galdetzen diote beren buruari ea hura ekoiztean gizarte-bidegabeke-riarik egon den edo produktu horrek zer-nolako ingurumen-eragina duen

Gazteen % 84,2k etxeko zaborra bereizten dute, hondakin-motaren arabera

Lehen aipatu bezala, gazteek gehien baliatzen duten jokabide arrazionala erreklamatzeko da, erositako produktuekin edo kontratatutako zerbitzuekin arazoren bat izanez gero: 15-29 urteko pertsonen % 81,4k arazoren bat duten bakoitzean erreklamatzeko ohitura dute; % 13,8k batzuetan soilik erreklamatzeko dute; eta % 3,8k ez dute inoiz erreklamatzeko. Arazoak izanez gero erreklamatzeko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubidea da, eta gazte gehienek hori baliatzeko ohitura dute.

8.2. Gutxiengoa dira ohiko kontsumoan irizpide etikoei jarraitzen dietenak

Kontsumo etikoan, produktu bat erostean, ez da norberaren onura soilik kontuan hartu behar, honako hauek ere aintzat hartu behar baitira: produktua benetan behar dugun, zer gizarte- eta ingurumen-baldintzetan ekoitzi den, eta produktu horren kontsumoak zer-nolako ondorioak dituen.


Kontsumo horretarako, kontsumitzaileak hausnarketa sakonagoa egin behar du, eta gizarteari buruzko nolabaiteko ezagutza izan behar du, bai eta harekiko pentsamendu kritikoa ere.

Gazteen erdiak baino zertxobait gehiagok diote produktua erosi aurretik hausnartu egiten dutela ea produktua benetan behar duten (15-29 urteko pertsonen % 57,1ek horrela jokatu ohi dute), baina gutxiengoa dira diotenak kontuan hartzen dutela produktua zer lehengairekin egiten den (% 17,4), produktuak zer-nolako zaborra edo hondakinak sortuko dituen (% 16,9), produktua ekoiztean gizarte-bidegabekeriari egin den, hala nola haurren esplotazioa (% 16,1) edo produktuaren ekoizpenak edo garraioak zer-nolako ingurumen-inpaktua eragin duen (% 11,1).

Kontsumo etikoaren indizea kalkulatzeko, aipatutako bost jokabideetatik gutxienez hiru baliatzen dituzten gazteak hartzen dira kontuan. Indize horren arabera, Euskadiko gazteen % 12,8k soilik egiten du kontsumo etikoa.

Irizpide ekonomiko eta monetarioetan arreta handiagoa jartzeak irizpide etikoetan arreta txikiagoa jartzea eragin du. Kontsumo etikoaren indizea hiru puntu jaitsi da 2010etik 2013ra.

8.2 grafikoa
15-29 urteko gazteen kontsumo etikoaren indizearen bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Kontsumo arduratsuaren ohituren bilakaera EAEko gazteen artean 2010-2013)

Kontsumo etikoari dagokionez, ez dago alde handirik gizon eta emakume gazteen artean (% 12,0 eta % 13,7, hurrenez hurren). Mutilek neskek baino neurri handiagoan hartzen dute aintzat ea produktua benetan behar duten, baina neskek neurri handiagoan hartzen dute kontuan ea ekoizpen-prozesuan nolabaiteko bidegabekeriari egin den.

8.3. Euskal gazteen % 43,3k kontsumo jasangarria egiten dute

Kontsumo jasangarriak helburu hau du: premiak asetzea, gehiegikeriak egin gabe eta ingurumen-kalteak ez eragiten saiatuta. Ahalik eta natura-baliabide gutxien erabiltzea da kontua, eta hondakinen eta gai kutsakorren isurketak minimizatzea produktu edo zerbitzu baten bizi-zikloan, gaur egungo premiak asetzean etorkizuneko belaunaldiak beren premiak asetzeko izan behar duten aukera arriskuan jarri gabe.


Kontsumo jasangarriaren indizea eratzeko, ingurumena zaintzearekin lotutako portaera hauek hartu dira kontuan: etxeko zaborra bereiztea, hondakin-motaren arabera (gazteen % 84,2k diote hori egin ohi dutela), garraioa erabiltzea edo autoa partekatzea (% 69,2), ur-kontsumoa murrizten saiatzea (% 67,3), enkarguak egitean norberaren poltsa edo orga eramatea (% 64,9) eta gehiegikeriak gabe ontziratutako edo paketatutako produktuak erostea (% 35,8).

Egunerokoan jarraibide horiek betetzen dituzten gazteen ehunekoa gora egin du 2010-2013 aldian, ur-kontsumoarena izan ezik, zertxobait behera egin baitu. Hondakinak birziklatzeko bereiztea izan da gora gehien egin duen portaera (2010ean, % 76,3, eta 2013an, % 84,2).

Pertsona batek kontsumo jasangarria egiten duela esateko, jasangarritasunarekin lotutako bost portaera horietatik gutxienez lauk ohiko portaera izan behar dute. 2013an, kontsumo arduratsua egiten dutenen ehunekoa % 43,3 zen, bi puntu handiagoa 2010eko ehunekoa baino (% 41,2). Emakumeen kontsumoa gizonena baino zertxobait jasangarriagoa da.

8.3 grafikoa

15-29 urteko gazteen kontsumo jasangarriaren indizearen bilakaera, sexuaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (*Kontsumo arduratsuaren ohituren bilakaera EAEko gazteen artean 2010-2013*)

Badaude kontsumo jasangarriko beste forma batzuk, eta indizea eratzeko erabiltzen ez badira ere, eragin zuzena dute jasangarritasunean eta ingurumenarekiko errespetuan: tokian tokiko sasoiko frutak eta berdurak erostea (2013an, gazteen % 46,2k zuten kontsumo-ohitura hori), produktu birziklatuak erosten saiatzea, hala nola papera eta tonerra (% 35,3), zenbait produktu ez erosten saiatzea, ingurumen-arrazoientatik (% 18,6), eta produktu ekologikoak edo etiketa ekologikoa duten produktuak erostea (% 16,6).

**Gazteen
% 13,4k bizikleta
erabiltzen dute
egunero edo ia
egunero, batetik
bestera joateko**

8.4. Garraiobide jasangarrien (garraio publiko kolektiboa eta bizikleta) eguneroko erabilerak gora egin du


2016an, 15-29 urteko Euskadiko gazteen % 39,8k zioten garraio publiko kolektiboa (autobusa, trena, metroa, tranbia...) egunero edo ia egunero erabiltzen zutela. Ehuneko hori handiagoa da bai 2012koa baino (% 37,2) bai 2008koa baino (% 33,4).

Halaber, gazteen artean, gora egin du ohiko lekualdatzeetarako bizikleta egunero edo ia egunero erabiltzen dutenen ehunekoa. Ehuneko hori % 5,3 zen 2008an; % 9,6, 2012an; eta % 13,4koa, berriaz, 2016an.

Baina bizikletaren eta garraio publiko kolektiboaren erabilera ez da berdina kolektibo guztietan. Neskek mutilek baino neurri handiagoan erabiltzen dute garraio kolektiboa, baina mutilek neskek baino proportzio handiagoan erabiltzen dute bizikleta. Lurraldeka, Bizkaiko gazteak dira garraio publiko kolektiboa gehien erabiltzen dutenak eta bizikleta gutxien erabiltzen dutenak. Araban, guztiz kontrakoa gertatzen da; hau da, hango gazteak dira beren ohiko lekualdatzeetan bizikleta gehien erabiltzen dutenak eta garraio publiko kolektiboa gutxien erabiltzen dutenak. Gipuzkoa tarteko postuan dago, bai garraio publikoaren erabileran, bai bizikletaren erabileran. Adinari erreparatuta, ikusten da 25 urtetik beherakoak direla garraio publikoa eta bizikleta gehien erabiltzen dituztenak.

8.4 grafikoa


Garraio publiko kolektiboaren eta bizikletaren eguneroko edo ia eguneroko erabileraren bilakaera 15-29 urteko gazteen artean (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak bilduma)

8.5 grafikoa

Garraio publiko kolektiboaren eta bizikletaren eguneroko edo ia eguneroko erabilera 15-29 urteko gazteen artean, sexuaren, adin-taldean eta egoitzako lurralde historikoaren arabera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Euskadiko gazteak 2016)

8.5. Beste kontsumo-forma alternatibo batzuk gora egiten ari dira

Jarraian azaltzen diren kontsumo-moduak norberak erabiltzeko bakarka erostearen eredutik urruntzeko ahaleginak dira, eta helburu hauek dituzte: produktuak berrerabiltzea, natura-baliabideen kontsumoa murriztea, eta, gizarte-alderdiari dagokionez, ekoizpen-baldintzak bidezkoagoak eta ekitatiboagoak izatea. Hona hemen praktika horietako batzuk: bigarren eskuko produktuak erostea, truke-merkatuetan parte hartzea, erabilera komunerako erosketak kolektiboak egitea, eta bidezko merkataritzako produktuak erostea.


Praktika horiek sarritan egin dituztenak kontuan hartuta, 2013an, ikusten da 15-29 urteko gazteen % 16,1ek produktuak erosten dituztela zenbait pertsonaren artean, erabilera komunerako; % 14,1ek bigarren eskuko produktuak erosten dituztela; % 7,4k bigarren eskuko produktuak saltzen dituztela; % 7,7k bidezko merkataritzako produktuak erosten dituztela; eta gutxi batzuek (% 1,9) truke-merkatuetan parte hartzen dutela, baina esan behar da horrelako merkatuak ez direla oso ohikoak.

Ohitura horiek guztiek, minoritarioak izan arren, gora egin dute 2010etik 2013ra.

Bizikleta gehien erabiltzen dutenak hauek dira: mutilak, 25 urtetik beherakoak, eta Araban bizi direnak

Bikoiztu egin
dira bigarren
eskuko
produktuen
salerosketak

8.6 grafikoa
Kontsumo alternatiboko zenbait praktika askotan baliatzen dituzten 15-29 urteko gazteen ehunekoaren bilakaera (%)



Iturria: Gazteen Euskal Behatokia (Kontsumo arduratsuaren ohituren bilakaera EAEko gazteen artean 2010-2013)

Kontsumo alternatiboaren indizea eratzeko, lau erosketa-forma hauetatik gutxienez bat askotan erabili dituztenak hartzen dira kontuan: erosketa komunak egitea, bigarren eskuko produktuak erostea, bidezko merkataritzako produktuak erostea, edo truke-merkatuetan parte hartzea. Definizio horren arabera, esan daiteke kontsumo alternatiboaren indizea % 28,1 izan zela 2013an, eta gora egin duela 2010eko indizearekiko (% 21,7 zen urte horretan).

Beste kontsumo-forma alternatibo batzuen helburuak produktuak berrerabiltzea eta diru-kostuak ekiditea dira, eta oso minoritarioak diren arren, badirudi aurrera egiten ari direla: gazteen % 6,5ek diote gutxienez behin trukatu dituztela arropa- edo objektu-loteak pertsona ezezagunekin, Internet bidez eta dirurik erabili gabe. % 6,5ek, halaber, diote denbora-bankuetan noizbait parte hartu dutela, beste pertsona batzuekin zainketa-lanak edo zerbitzuak trukatzeko.

Laburpen-koadroa





www.gaztebehatokia.euskadi.eus

